

asteari zeharka begira

HEZKUNTZA LEGEA ETA

HAUTESKUNDE GIROA IÑAKI ALTUNA > 11

**SLOW FOOD ARABA: IA HOGEI
URTE KALITATEZKO ELIKADURA
SUSTATZEN > 12**

2023ko apirilaren 29a | XVII. urtea • 822. zenbakia
0,50 euro


GAUR8 

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

AMELIA TIGANUS

*«Emakumeak
gizonak
dibertitzen
dituztenak direla
sinetsarazten
zaie sare
sozialetan
neska-mutikoei»*





SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Irlandar errepublikanoak, pragmatismoaren erreginak
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Sinesmenak berrikusten
- 11 **Iñaki Altuna:** Hezkuntza legea eta hauteskunde giroa
- 16 **Amaia Ballesteros**
- 20 **Itziar Elizondo Iriarte:** Ordu aldaketarekin orduan zer?
- 21 **Xabier Izaga Gonzalez:** Norbere burua ahanzte, bertsio ofiziala... eta egia?
- 26 **Miren Azkarate Badiola:** Zazpi desberdintasunak
- 26 **Amagoia Mujika Telleria:** Sare sozialak, erakusleioa eta lupa
- 30 **Maite Oronoz:** ChatGPT, Irulegiko eskua eta haluzinazioak



Giza eskubideak neurtzeko Mendebaldearen bi neurriak agerian, Airen arabera 04

Mongoliako matxinadaren ajeak: hotzari aurre egin dio herriak ustelkeria salatzen 08

Feli Arregui saritu du Slow Food Araba elkarteak 12

Eustaquio Berriochoak Rifeko gerran egindako argazkiak ikusgai daude Urretxun 17

Amelia Tiganus: «Pornografia kontsumitzen duenak indarkeria erotizatzen du» 22

Pantaila txikian: Komedia erromantikoei errebasoa 19

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



{ datorrena } Iñaki SOTO

Irlandar errepublikanoak, pragmatismoaren erreginak

Michelle O'Neill buruzagi errepublikanoak maiatzaren 6an Londresera Charles III.aren koroatzera joateko hartutako erabakia mugimendu argia eta ausarta iruditu zait. Gogoratu behar da O'Neill lehen ministro hautatua dela.

Alegia, Sinn Feinek hauteskundeak irabazi zituen, baina unionisten betoagatik ezin izan du Gobernua osatu.

Blokeoa luzatzen ari da, unionismoak ez baitzituen abertzaleak errespetatzen gutxiengoa zirenean, eta orain gehiengoa direnean ez du haiek gobernatzea onartu nahi. Unionismoak ez du demokraziaren bi funts horietako bat bera onartzen. Artez edo moldez, doktrina antidemokratiko hori estatuturik gabeko nazioetako gatazka guztietan errepikatzen da.

Bere erabakia azaltzen zuen oharrean, Sinn Feineko buruzagiak «aldaketa handiko garai batean» bizi garela zioen, eta «ezberdinak eta era berean legitimoak diren gure anbizioak errespetatzeko unea» dela, «etorkizunari eta hurrengo hamarkadak ekarriko dituen aukerei tinko begiratzeko unea».

Jakina, O'Neillek «irlandar errepublikano» gisa definitzen du bere burua. Hauteskundeetara aurkeztu zenean, ordea, irabaziz gero iparraldeko irlandar guztien ordezkari izango zela agindu zuen. Bertako herritar asko tradizio britainiarraren parte direla eta koroarekiko leialtasuna sentitzen dutela badaki. Ondorioz, emandako hitza betetzeko, Londresera joateko gonbita onartu du Sinn Feinek.

Berdintasunaren ideia errepublikanismoaren oinarria da, bere balio nuklearra eta une historiko honetan duen arma politiko zuzenena. Sinn Fein lehen indarra da iparraldean, eta inkestek posizio bera ematen diote hegoaldean. Lan itzelari esker, zenbait krisi, trantsizio bat eta belaunaldi aldaketa jasan ondoren, errepublikano ezker-tiarrak oposizio izatetik alternatiba izatera igaro dira.

Uneotan, Konstituzioaren aldaketaren eztabaida ere abian da, eta irlaren batasunaren auzia urte gutxiren buruan erabaki liteke, agian. Oro har, gatazka latz baten ostean eta segregazioak irauten duen jendarte batean, zuk arerioak ez dituzula haiek zu tratatu zintuzten bezala tratatuko oso mezu indartsua da.

O'Neill Martin McGuinnessen oinordekoa da. Derryko buruzagi historikoa duela hamarkada bat baino gehiago elkartu zen Charles III.aren amarekin, Elizabeth II.a erreginarekin. Kasu hartan, topaketa are deigarriagoa ere bazen, luzaroan erregina IRAren helburu militarra izan baitzen, eta McGuinnesssek, erakunde horretako militante izandakoak, britainiarren errepresioa intentsitate osoz jasan baitzuen. Urrutiago joan gabe, bere jaioterrian, *Bloody Sunday*ko gertakarietan.

Sinn Fein irla osoan lehen indarra izan daiteke. Lan itzelari esker, zenbait krisi, trantsizio bat eta belaunaldi aldaketa jasan ondoren, errepublikanoak oposizio izatetik alternatiba izatera igaro dira

Inbidia ematen dit irlandar lagunen pragmatismoak, koherentea baita. Oro har, ez dituzte esparruak nahasten eta alor bakoitzaren mugak ulertzen dituzte. Adibidez, hauteskundeen mugak onartzen dituzte, baina hala ere, ez dute haien garrantzia gutxiesten. Irlandaren batasuna gerturatuko dutela pentsatuko dute edo ez, baina ez dute erreferendum batekin nahastuko. Lege soil batek munduan diren gaitz guztiak ez dituela ezabatuko badakite, halaber. Hezkuntza edo etxebizitza lege batek, adibidez, ez dituela beren herri eta auzuneak falansterio edo komuna utopiko bihurtuko badakite. Politikagintzan, alde edo kontra egon zaitezke, zuzen edo oker, baina ezin zara errealitateaz aparte kokatu. •

{ informea } GAUR8

GIZA ESKUBIDEEN BI NEURRIAK

Ukrainako gerrak agerian utzi du Mendebaldeak bi neurri dituela giza eskubideen alorrean, Alren arabera

Ukrainako gerra gogor salatu eta gaitzetsi dute Mendebaldeko herrialdeek eta herrialde hori etengabe babestu dute 2022ko otsaileko inbasiotik. Aldi berean, giza eskubideen beste urraketa larri batzuen aurrean erantzun leuna izan dute eta «neurri esanguratsuen falta deitoragarria» erakutsi dute. Hala salatu du Amnesty International (AI) erakundeak 2022. urteko txostenean.

Errusiak 2022an Ukrainan egindako inbasioak «Mendebaldeko estatuen hipokrisia azaldu du, errusiar erasoari indarrez erantzun diotelako, baina ez ikusiarena egin dutelako beste leku batzuetako urraketa larrien aurrean, konplize izanik», azaldu du erakundeak txostenean.

AI-k Saudi Arabia inguratzen duen «isiltasun gorgarria» aipatu du –auzitegiek heriotza zigorra ezarri dute epaiketa bidegabeetan eta manifestari baketsu askok espetxe zigor luze asko jaso dituzte– edo Egipto, non erregimenaren aurkariak arbitrarioki atxilotzen eta bidegabeki auzipezten jarraitu duten.

«Erantzun bikaina izan da Errusiak Ukrainako herriaren aurka egindako erasoari emandakoa. Oraingo eta etorkizuneko krisietarako eredu izan beharko lukeen erantzuna da», adierazi du Agnès Callamard AI-ko idazkari nagusiak. Baina «beste krisi batzuk alde batera uzten baditugu, murrizten dugu Ukrainan egindakoaren balioa», gaineratu du.

Bere erakundeak deitoratu egin du «beste herrialde batzuetan, Mendebaldeak antze-

AI-k Saudi Arabia inguratzen duen «isiltasun gorgarria» aipatu du. Auzitegiek heriotza zigorra ezarri dute epaiketa bidegabeetan eta manifestari baketsu askok espetxe zigor luzeak jaso dituzte

Europar Batasuneko ateak, «ukrainar errefuxiatuak hartzeko zeharo ireki direnak», itxita egon dira Afganistandik edo Siriatic ihes egiten duten pertsonentzat

Emakumearen kontrako jazarpena areagotu egin da Iranen. AI-k Mahsa Amini gaztearen heriotza eta ondorengo protesten kontrako errepresioa aipatu ditu bere txostenean.
Atta KENARE | AFP

ko eraso ekintzak onartu izana, bere interesak jokoan daudelako».

Esaterako, Israelen, azken urteko gobernuak «palestinar gehiago haien etxeak uztera behartzeko, legez kanpoko koloniak garatzeko eta koloniak legeztatze neurriak ezarri dituzte okupatutako Zisjordanian, baina Mendebaldeko gobernu askok sistema horren aurka egin beharrean, nahiago izan dute apartheid salatzaren zutenak eraso», salatu du Amnistiak.

Etiopian ere «azken urteetako gatazkarik hilgarrienetako

bati emandako erantzun tamalgarriak» kritikatu ditu erakundeak. Izan ere, 500.000 pertsona hil dira, Ameriketako Estatu Batuen arabera.

Errefuxiatuekin, bestalde, jarrerara kontraesankorrak daude. Europar Batasuneko ateak, «ukrainar errefuxiatuak hartzeko zabal-zabalik egon direnak», itxita egon dira Afganistandik edo Siriatic ihes egiten duten pertsonentzat. Halaber, Ameriketako Estatu Batuek dozenaka mila ukrainar hartu dituzte, baina 2021eko irailetik 2022ko maiatzera 25.000 haitiar baino gehiago kanporatu


zituzten, askotan atxilotu eta horietako asko torturatu ondoren.

Mendebaldeak giza eskubideen inguruan duen ikuspegi selektibo eta berekoi horrek giza eskubideen aurkako gehiegikeriengatik kritikaturako beste herrialde batzuen ekintzak indartu ditu; Txina renak, adibidez. Han «gutxiengo etnikoen aurkako errepresio sistematikoarekin jarraitu du Xinjiangen eta Tibetean». Bestalde, «Hong Kongen Gobernuak demokraziaren aldeko borroka mugimendua zapaltzen jarraitu du», adierazi du erakundeak.

Ukrainako gerrak, gainera, baliabideak ez ezik, krisi klimatikoaren arreta ere desbideratu du; izan ere, berotze globalaren hondamendiak kontroletik kanpo daudela dirudi, eta munduko liderrek ez dute lortu ados jartzea tenperaturen igoera 1,5°C-tik behera mugatzeko neurrien inguruan.

Brasilen, Kanadan, Suedian, Tanzanian eta Vietnamen, besteak beste, herri indigenen eskubideak urratu dira, enpresen edo botere publikoek haien lurraldeak desjabetu dituztenean ez dutelako inongo babesik izan.

«Errusiaren erasoari mundu osoan emandako erantzuna balioen arabera eta Zuzenbide Estatuan oinarritutako nazioarteko sistema bat ezartzeko inflexio-puntua dela defendatu nahi duen edozein logika ahulduta geratzen da estatuek beren lurraldeetan bermatu behar dituzten giza



eskubideen babesaren narriadura nabariaren ondorioz», dio Callamardek.

Gainera, 2022an, oro har, «eskubide zibil eta politikoen degradazio» nabarmena gertatu da Mendebaldeko herrialde batzuetan izandako errepresioagatik; Estatu frantsesean, kasu. Agnes Callamardek adierazi du, bertan, poliziek eta jendarmeez indarra legez kanpo erabili dutela manifestarien aurka.

Emakumeen eskubideek ere okerrera jo dute, batez ere Irannen, non abestu edo beloa ez eramateagatik batzuk hil dituzten. Edo Afganistanen, non «emakumeak objektu bihurtu diren talibanez boterea hartu zutenetik». Baita AEBetan ere, non abortatzeko aukera zalantzan jartzen duten askok.

UKRAINKO GERRA

Ukrainarekin erabiltzen den «neurri bikoitza» salatu arren, bertako egoera ere aipatu du Amnesty Internationalek.

«Errusiak Ukraina inbaditu izana, Nazioarteko Zuzenbidea urratuta eta bestelako ondorioz gabe, eredu ikaragarria da giza eskubideak urra ditza ketela uste dutenentzat», esan du Callamardek.

Horrela, «sistemak funtzionatu izan balu eta, orduan, Txetxenian eta Sirian egindako krimenengatik Errusia kontuak ematera behartu izan babiliz, eta orain, Ukrainan eta beste leku batzuetan egindakoengatik, milaka bizitza salba zitezkeen. Aldiz, sufrimendu eta hondamen gehiagoren kontra borrokatzea dagokigu», deitoratu du.

«Errusiaren eraso gerrak munduaren etorkizunerako zerbait argi uzten badu, hauxe da: garrantzitsua dela modu



Israelen azken urteko gobernuek «palestinar gehiago haien etxeak uztera behartzeko eta legez kanpoko koloniak garatzeko neurriak ezarri dituzte Zisjordanian, baina Mendebaldeko gobernu askok sistema horren aurka egin beharrean, nahiago izan dute apartheid salatzeko eraso»

eraginkorrean eta koherentean aplikatzen diren arauetan oinarritutako nazioarteko ordena bat izatea. Estatu guztiek ahalegin handiagoa egin behar dute arauetan oinarritutako ordena berri bat izateko, pertsona guztiei leku guztietan mesede egingo diena», gaineratu du.

AI-ren txostenak garbi dio Ukrainaren inbasioa «Nazio Batuen Erakundearen Kartaren urraketa» dela eta soldadu errusiarrek Ukrainako milaka zibil hil dituztela. Beste krimen batzuen zantzu ugari ere badira; hala nola, tortura, sexu indarkeria eta legez kanpoko homizidioak. Amnistiak, halaber, azpiegitura zibilen aurkako errusiarren bonbardaketak aipatu ditu: eskolak, etxebizitzak, ospitaleak edo sare elektrikoak.

Nazioarteko zuzenbide humanitarioa urratzea ere leporatu dio Errusiari, preso hartutako soldadu ukrainarrei eta Moskuko indarrek okupatutako eremuetako zibilei laguntza ukatu dielako. Bahiketak, torturak eta zibilen exekuzio estrajudizialak ere dokumentatu ditu.



Preso hartutako soldadu ukrainarrak epaitzeko agintari okupatzaileek sortutako auzitegi ez-legitimoak erabiltzea gaitzetsi du, baita Errusiaren kontrolpeko eremuetako adingabeko zibilak indarrez eramatea ere.

Dokumentuak gogorarazi duenez, bestalde, ia 8 milioi ukrainarrek –gehienak, emakumeak, haurrak eta adinekoak– herrialdetik ihes egin dute errefuxiatu gisa. Gainera, Ukraina barruan 7 milioi pertsona lekualdatu dira.

Erakundeak Ukraina ere kritikatu du, hedabideak arautzeko ardura duen estatuko organoari gehiegizko ahalmenak ematen dizkion lege bat onartzeagatik, besteak beste.

LATINOAMERIKA

Gainerako leketan, Amnesty Internationalaren arabera, Latinoamerika izan da zenbait giza eskubide –manifestazioa edo adierazpena, kasu– murrizteko joera globalaren eredu.

«Latinoamerikako joerak ondo islatzen dituzte joera globalak, eta ikusi dugu manifestatzeko eskubidea, adieraz-

pen askatasuna eta protestaren bidezko ekintza kolektiborako eskubidea murriztu edo erreprimitu dituztela indarra erabilia».

Peruko giza eskubideen atzerakada globalaren kasurik argigarrietako bat izan zen 2022an: «Herri indigenak jomuga izan dira presidentearen egoeraren aurkako protesta politikoen testuinguruan».

Era berean, AI-ko idazkari nagusia Kolonbiara joan zen 2022an, eta, 2021ean Calin eta beste leku batzuetan izandako protestetan parte hartu zuten taldeekin egindako bileretan, egiaztatu zuen «ez dela inolako konturik eman» mugimendu sozial haren kontrako errepresioagatik; izan ere, mugimendu horrek hildako, zauritu eta sexu indarkeriaren biktima asko izan zituen. Callamardek zehaztu du, halaber, 2022an Kolonbiako herritar ahulenen aurkako indarkeriak jarraitu zuela, indar militarrek, talde armatuek edo eragile korporatiboek –meatzaritza edo petrolio konpainiak– eragindakoak.

Hala ere, AI-ko idazkari nagusiak baikortasunez adierazi

du zantzuak daudela esateko Gustavo Petrok zuzendutako Kolonbiako Gobernu berria modu positiboan jokatzeko prest dagoela. Ildo horretan, 2022an Kolonbian abortua despenalizatu zuen legea ezarri izana nabarmendu zuen.

Covid-19aren pandemia hasi eta hiru urtera, Latinoamerikak ondorio suntsigarriak pairatzen jarraitu du: atzeraldi ekonomiko handia, oinarritzko eskubideak bermatzen ez dituzten gobernuak eta protestak isilarazteko gero eta taktika errepresibo gehiago, txostenaren arabera.

AFRIKA

Neurri bikoitza antzeman du Amnesty Internationalek Afrikaren kasuan ere. Gogor erantzun diote Ukrainako gerrari Mendebaldeko estatuek, baina isilik geratu dira Afrikako herrialdeetan gertatutako urraketak larrien aurrean: Burkina Faso, Afrika Erdiko Errepublika, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Etiopia, Mali eta Mozambiken. Horren ondorioz, erantzun ezak inpunitatea eta ezezagortasuna suspertu ditu.

Eta kritika Afrikako Batasunari (UA) ere luzatu dio, ez duelako erantzunik eman edo, kasurik onenean, erantzuna oso epela izan delako. Japhet Biegonek, AI-k Afrikan duen koordinatzaileak, Afrikako Batasunaren lidergoaren porrota» salatu du. «UA duela hogeitau urte sortu zen, besteak beste, Afrikako gatazkei modu aktiboan erantzuteko eta horiek prebenitzen saiatzeko (...) baina kontinente osoko herritar askok ez dute inolako arrazoirik urteurren hori ospatzeko», adierazi du.

«Uaren eta Nazio Batuen Erakundearen arreta faltagatik

Goian, emakume ukrainar bat, eraso jasan duen etxebizitza eraikin baten aurrean. Behean, familia palestinar bat, bere etxearen aurrean, soldadu israeldarrak miaketa egiten ari diren bitartean.

Anatoli STEPANOV- Ahmad GHARABILI | AFP



«Latinoamerikak ondo islatzen ditu joera globalak. Manifestatzeko eskubidea, adierazpen askatasuna eta protestaren bidezko ekintza kolektiborako eskubidea murriztu edo erreprimitu dituzte indarra erabilita»

«Orduan, Txetxenian eta Sirian egindako krimenengatik, Errusia kontuak ematera behartu izan balitz, eta orain, Ukrainan eta beste leku batzuetan egindakoengatik, milaka bizitza salba zitezkeen»

edo ekintza sendoen faltagatik adoretuta, talde armatuek eta gobernuetako indarrek, kontinente osoan zehar, zibilen kontrako erasoak egiten jarraitu dute, heriotza eta suntsipen arrastoa utzita», salatu du txostenak.

Biegonek dioenez, UAk Hego Sudanerako Auzitegi Hibridoa (HCSS) irekitzeko agindua eman eta zazpi urtera –2013an azken gerra zibila hasi zenetik herrialde horretan egindako krimenak epaitzeko– ez da oraindik ere martxan jarri.

Era berean, iazko azaroan Etiopiako iparraldeko gerra bukatutzat eman zuen bake akordioan UA arrakastaz bitartekari aritu zen arren, «he-

rrialdean izandako zigorgabetasun neurrigabea alde batera utzi du, eta ez du ibilbide orri argirik eskaini gerrako eta gizateriaren aurkako krimenengatik kontuak ematea bermatzeko».

Giza eskubideen aldeko gobernu kanpoko erakundeak, halaber, koronabirusaren pandemiaren, Ukrainako gerraren eta krisi klimatikoaren eragin ekonomikoaz duen kezka nabarmendu du, «elika-durarako, osasunerako eta bizi kalitate egokirako milioika pertsonaren eskubideak nabarmen ahuldu direlako kontinente osoan».

«Oinarritzko produktuen prezioak gora egin du, eta ho-

rrek zaildu egiten du pertsona arruntek elikagaiak eta oinarritzko beste premia batzuk ordaintzea. Pertsona askok zailtasunak dituzte Zimbabwe, Liberia, Hego Sudan eta antzeko ekonomia ahuletan bizitzeko», nabarmendu du Samira Daoud Afrikako mendebaldeko eta erdialdeko AI-ko zuzendariak.

Gainera, Afrikako herrialde batzuk –hala nola, Kamerun, Etiopia, Eswatini, Ginea, Mali, Mozambique, Senegal eta Zimbabwe– disidente baketsuak, kazetariak eta giza eskubideen aldeko ekintzaileak isilarazten saiatzen dira.

Txad, Kongoko Errepublika Demokratiko, Ginea, Kenya,

Nigeria, Senegal, Sierra Leona, Somalia eta Sudanen dozenaka manifestari hil dituztela dokumentatu du AI-k.

Genero indarkeriak Afrikan ere iraun zuen 2022an: Hegoafrikan hildako emakumeen kopuruak gora egin du, haurdun dauden neskei ikasteko debekua ezarri diete Tanzania-ko eta Ekuatore Gineako ikastetxeetan, eta herrialde askotan bortxaketetatik bizirik ateratzen direnak babesteko sistemarik ez dago.

TXINA

Bestalde, Txinaren kasuan ere errepresioak gora egin duela salatu du AI-k. Bere arabera, online zentsura nonahikoa da, eta Xinjiangen musulmanen jazarpena jarraitu du eta balizko gizateriaren aurkako krimenak ere egin dituzte. «Gobernua kritikatzeko dutenak eta giza eskubideen defendatzaileak arbitrarioki atxilotu eta torturatzen dituzte»

AMERIKETAKO ESTATU BATUAK

AEBetan epaitegiek –federalak zein Auzitegi Gorena– giza eskubideen babesa urratu dute, abortuaren, armen kontrolaren eta asiloaren kontrako erabakiekin. Besteak beste, iazko ekainean, 50 urteko jurisprudentzia bertan behera utzi zuen epaia aipatu du txostenak, abortu eskubidea defendatzen zuen 1973ko “Roe Waderen kontrako kasua” ezeztatu zuena. Orduz geroztik, 13 estatuk abortua debekatu dute modu batera edo bestera eta beste hamarrek murriztu egin dute.

ERRUSIA

Ukrainan urraketak egiteaz gain, Errusiak barneko disidenteekin kontrako errepresioa handitu duela salatu du Am-

nesty Internationalek; batez ere, gerra kritikatzeko dutenen aurkakoa.

«Disidentziaren kontrako etengabeko errepresioan, agintariak murrizketa gogor gehiago ezarri dizkiote adierazpen eta elkartze askatasunari», salatu du. Hala, protesta bake-tsuetan poliziak gehiegizko indarra erabili du eta 19.400 pertsona baino gehiago atxilotu ditu, kazetariak barne. AI-k gogoratu du lege berriak zigortzen duela Armadaren ospea zikintzea eta hari buruzko «informazio faltsua» zabaltzea.

EKIALDE ERTAINA

Ekialde Ertaineko gobernuak ez diote erantzun egokirik eman baldintza ekonomikoak okertzeari eta, batez ere, Libano eta Egiptoko krisi larriak nabarmendu ditu txostenak. Hiru gertaera ere azpimarratu ditu munduko eskualde honetan: Iranen, Mahsa Amini gaztearen heriotza eta ondorengo protesten kontrako errepre-

Estatu espainolean larriagotu egin da «zigorgabetasun giroa eta kontuak ez ematea», eta horren adibide da agintariak zaharren egoitzetan izandako eskubide urraketak edo Melillako hesian gertatutako sarraskia ez ikertu izana

Ezkerrean, AEBetako mugako poliziek Paso del Norte pasabidea itxia dute etorkinen sarrera galarazteko. Eskuinean, polizia frantsesak, gizon bat atxilotzen, erretreten erreformaren aurkako manifestazio batean. Herika MARTINEZ- Sebastien SALOM-GOMIS | AFP

sioa; Egipton, COP27 Klimaren gailurra eta Qatarreko Mundu Futbol Txapelketa. Azken bi kasuetan, herrialde horietan gertatzen diren giza eskubideen urraketak larriak agerian geratu dira.

Persiar Golkoko gobernuak ere atxilotuak arbitrarioak eta heriotza zigorra erabili dituzte, adierazpen askatasuna murriztu eta langile etorkinen eskubideak urratzeaz gain. Adibidez, Saudi Arabiak hamarkadetan egindako exekuzio kolektiborik handiena egin zuen 2022an: egun bakar batean 81 pertsona hil zituen.

ESTATU ESPAINOLA ETA FRANTSESA


Txosten luze honen azterketan hurbilagoko salaketak ere badaude. Amnesty Internationalek dio 2022an Estatu espainolean larriagotu zela «zigorgabetasun giroa eta kontuak ez ematea», eta horren adibide da agintariak zaharren egoitzetan izandako eskubide urraketak edo Melillako he-

sian gertatutako sarraskia ez ikertu izana.

GKEak Mozal Legeak babesten dituen gehiegikeriak ere salatu ditu, «herritarrak babesik gabe utzi dituelako segurtasun indarretako kideen gehiegizko indarraren aurrean» eta mugan legez kanpoko kanporaketak babesten dituelako.

Estatu frantsesean arraza eta erlijio diskriminazioak bere horretan jarraitu du, batez ere musulmanen aurka. Poliziak indar gehiegi erabiltzen jarraitu du, erantzukizunik hartu gabe. Balio errepublikanoei buruzko legeak, bestalde, elkartzeko askatasuna murriztu du.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ebatzi du Frantziak urratu dituela errefuxiatu txeniarren eta baliabiderik gabeko asilo eskatzaileen eskubideak. Eta bertako hiru arma enpresaren aurkako salaketa penala jarri da, Yemenen egingutako gerra krimenetan eta gizateriaren aurkako krimenetan konplizitatea leporatuta.





Ulan Bator, Mongoliako hiriburua, 2022ko abenduaren 4a. Manifestariak kalera atera dira, izotz artean, ustelkeria kasu bat salatzeko. Asko gazteak dira, baina ia adin guztietako jendea antzematen da protestetan.

Haserre daude, eta ez da gutxiagorako. 12.900 milioi dolar balio zuen ikatzaren lapurretaren berri izan dute: guztira, 6,5 milioi tona ikatz. Mongoliako hainbat politikarik zuzenean hartu dute parte lapurretan.

Ez dira bakarrak. Txinan, Mongoliako ikatz-lapurretan parte hartu dutenak exekutatu dituztela iragarri du Pekinek. Are gehiago, parte hartu zuten politikari mongoliarren izenak jasotzen dituen zerrenda Ulan Batorreko Gobernuari

MONGOLIAKO MATXINADAREN AJEAK

2022ko bukaeran mongoliarrek kalera atera ziren sistema ustelaren aurka

📁 ASIA / Dabid LAZKANOITURBURU

Mundua astindu zuen Ukrainako gerra hasi zen urte bukaeran, iaz, Errusiarekin eta Txinarekin muga egiten duen Mongolian ustelkeriaren aurkako matxinada izan zen. Euskal Herrian bizi den mongoliar batekin, Narangaravekin, hitz egin dugu.

bidali diotela ziurtatu du. Kontuan hartu behar da Mongoliak bere produktuen % 86 Txinara esportatzen duela, eta bolumen horren erdia baino gehiago ikatza dela. Mongolia-

ko ikatz-esportazioen balioa 4.500 milioikoa izan zen 2022ko lehen 9 hilabeteetan.

Gure artean bizi den mongoliar jatorriko pertsona batekin elkartu gara. Narangarav du

izena ('Nara' izen laburtuaz deitzen dute). Irunen elkartu gara, Mosku Plazan.

«Urteak zeramatzen lapurretan, inolako lotsarik gabe eta inpunitate osoarekin, eta

jendea oso haserre zegoen. Pentsa Mongolian 3 milioi pertsona inguru bizi direla eta bakoitzari zenbat zegokion xahututako dirutzatik. Kalkulu erraza da», gogorarazi du Narak.

«Jendeak lapurretan nahastuta zeuden 17 politikarien izenak jakinaraztea exijitzen zuen. Gero eta jende gehiago ateratzen zen kalera eta kontuan izan behar duzu egun haietan 35 gradu zero azpikoa zela tenperatura».

Manifestariak Gobernu jau-regiaren eta Parlamentuaren aurrean elkartu ziren eta istiluak izan ziren. Ulan Bator hiriburutik at ere protestak izan ziren; esate baterako, Mongoliako hirugarren hiririk handienean, Darkhanen.

«Hor egon ziren, 30 egunetan, 30 gradu zero azpitik, kale gorrian», dio Narak. Eta zer

lortu zuten? Gobernuak ustez ustelkerian aritutako ofizial batzuk atxilotuko zituela eta prozedura bat zabalduko zuela iragarri zuen. Bide batez meatzeez enpresak erreformatzeko planak iragarri zituen ustelkeria baztertzeko.

«Ez dute ezer ere egin –azaldu digu Narak–. Lapurretan buru belarri sartuta dauden politikariak ez dituzte atxilotuko, ez dira kartzelara joango».

Nola da hori posible? «Mongolian bi alderdi nagusi daude, baina diktadura balitz moduan funtzionatzen du sistemak. Ez da, noski, diktadura bat eta teoriarik herrialde demokratikoa da, bere konstituzioarekin eta bere parlamentuarekin (Jural Handia). Baina diktadura baten moduan funtzionatzen dute bi alderdiek, biek ala biek, Mongoliako ondasunen lapurretan parte hartzen dutelako».

Manifestazioetan ustelkeriaren aurkako leloak ziren nagusi. «Utzi jendeari lapurtzeari» eta «Lapurren aurka elkartuta» zioten pankartak ikusi eta lelo horiek berak oihukatu ziren.

USTELKERIATIK HARATAGO

Hala ere, protestak haratago joaten hasi ziren eta manifestariak Konstituzioan ezarritako herritarren eskubideak eta askatasunak gero eta muga-

12.900 milioi dolar balio zuten 6,5 milioi tona ikatz lapurtu zituzten bertako politikariek Txinako inportatzaile batzuekin batera. Haiak exekutatu egin zituen Pekinek

Lau hilabete igaro dira eta Mongolian inor ez da kartzelara joan, salatu du Narangaravek, mongoliar jatorrikoak, gure artean bizi denak: «500 bat inguru bizi gara Euskal Herrian»




Aurreko orrialdean, gure artean bizi diren mongoliarren elkarretaratzea, Donostiako udaletxearen aurrean. Lerro hauen alboan, protestak, Ulan Bator hiriburuan.
GARA

tuago daudela eta horregatik haien bizitzak egunetik egunera hondatzen ari direla salatzen hasi ziren.

Manifestarien artean protestak muturreraino eramatearen aldekoak baziren; batez ere, gazteak. Baina protestak gainbehera etorri ziren. Zergatik?

«Gobernua beteko ez zituen aginduak etengabe ematen ari zen bitartean, Poliziak matxinada indarrez amaitzea erabaki zuen», salatu du Narak. Hotzak akabatzen ia hilabete oso bat pasatu eta gero protestariak indarrez sakabanatzeari ekin zioten eta gazte batzuk biluzarazi ere egin zituzten, 30 gradu zero azpitik». Hainbat izozten hasiak zirela-eta medikuarenera eramane behar zituzteneko aitziakirekin, atxilotu ere egin omen zituzten batzuk.

Mongoliako matxinadatik lau hilabete igaro dira eta ez da ezertxo ere aldatu Erdialdeko Asiako estepa amaiezinegatik ezaguna den herrialdean.



Narangarav bezala Euskal Herrira bizitzera etorri diren «500en bat» mongoliarretatik batzuek matxinadaren aldeko elkarretaratzeak egin zituzten: Donostian, kasu. Gipuzkoako hiriburuan bizi da mongoliar komunitate bat, eta asteburuan Gladys Enea parkean elkartzen dira bazkaltzeko eta solasean edo jokoan aritzeko.

Nara haserre dago eta bere jaioterria pairatzen ari den

egoerari buruz ohartarazi nahi du. Iturri batzuek salatu dute nazioarteak eta, batez ere, Mendebaldeak esku hartu dutela protestetan. Horri buruz galdetu diogunean irribarre bat sumatu zaio: ezeztapenik dotorena edo, agian, salaketa ulertzen ez duenaren keinua.

Nara bera «agente arrotza tzat» ez badugu hartzen. Nor da arrotza Mongolian: bera ala salaketa hori egiten dutenak?



Saioa AGINAKO LAMARAIN
Psikoterapeuta

Sinesmenak berrikusten

Sinesmenak pentsamendu-ereduak zehazten eta arautzen dituzten usteak dira. Munduari, etorkizunari eta geure buruari buruz ditugun ideiak dira, eta batzuetan sentitzeko eta pentsatzeko modua zehazten duten usteak eta aurreiritziak sortu eta erabakiak hartzeko jarrera eta prozesuak baldintzatzen dituzte.

Gure bizitzan zehar, munduaren eraikuntza mentala egiten dugu, gure existentziari zentzua eman ahal izateko. Sinesmenek munduarekin elkarreraginean aritzeko esparru gisa funtzionatzen dute. Hauek pixkanaka garatzen doaz, haurtzarotik. Batez ere, familiarekiko eta berdinen taldearekiko harremanaren bidez gauzatzen dira, eta haien sinesmen asko hartzen ditugu. Zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta gaitasun txikiagoa dugu transmititzen dizkiguten sinesmenak aztertzeko eta zalantzan jartzeko, onerako edo txarrerako. Beraz, gure buruan automatikoki funtzionatzen duen eta gure jokabidean eta emozioetan eragin handia duen programazio moduko bat bihurtzen dira.

Denok ditugu sineste mugatzaileak; gutako bakoitzak bere giza potentziala estutzen duen pentsamendu bat baino gehiago fabrikatzen du egunero. Hala ere, gure gogamenean agertzea ez da arazoa; erronka iristen da guztiz desitxuratutako eta guretzat negatiboak diren ideiei balioa eta egiazkotasuna ematen diegunean eta onurarik ekartzen ez digutenean, gure garapenerako oztopo bihurtuta.

Beharrezkoa litzateke jakitea zein diren gu mugatzen gaituzten sinesmenak, eta zein unetan eta inguruabarretan agertzen diren ikustea; kontuan hartuta, gainera, galtzen ari garena zer den jakitea aldaketaren eragilea izan daitekeela. Hauek identifikatu ondoren, lagundu

egingo diguten beste sinesmen batzuekin ordezkatu behar ditugu.

Noizean behin zure sinesmenak berrikustea ariketa osasungarria da. Eguneroko bizitzan gidatzen gaituzten eta askotan nondik atera ziren edo guretzat zer balio duten ez dakigun ideia sustraituak mahai gainean jartzea baino gauza hoberik ez dago. Gogoan izan osasungarria dela zure sinesmenak berrikustea; batez ere, zuk nahi gabe, besteekiko etengabeko gatazkak edo urruntzeak eragiten dizkizutela antzematen baduzu. Autohausnarketaren eta pentsamendu kritikoaren artean trebatzeak ez du minik ematen, ez du ondoezik sortzen: eraldatu egiten gaitu. Inor ez da mundu konplexu eta aldakor batera moldatuko, baldin eta lehenik ez badu autoezagutza hori praktikatzeko, bertuteak pizteko eta mugatzen gaituzten kaiolak ezabatzeke.

Ez da erraza portaeraren eraldaketa bat epe luzera modu eraginkorrean lortzea. Lehenik eta behin, burmuinari kosta egiten zaiolako aldaketak onartzea. Ebidentziak diosku gure

garuna mekanismo inkontzienteen mende dagoela, eta horiek zaildu egiten dutela ohitura berrien integrazioa. Portaera bat aldatzea prozesu konplexua eta oso ezegonkorra da; hau da, atzerapausoak eta abandonoak daude. Jokabide edo jarrera berri horiek modu iraunkorrean mantendu ezin izateak osasun fisiko eta mentalean eragina izan dezake. Beraz, gai garrantzitsua da. Izan ere, askotan, zailtasuna ez da izaten borondaterik edo diziplinarik eza. Badira prozesu psikologiko batzuk azpian, urteetan arrastaka eramaten ditugunak eta detektatu behar genituzkeenak desaktibatzeke. Horregatik, laguntzeko, baliteke profesional bat behar izatea, zaila egiten bazaigu. •



Burmuinari kosta egiten zaio aldaketak onartzea. Feodora CHIOSEA | GETTY

saioaaginako@gmail.com

{ asteari zeharka begira } Iñaki ALTUNA

Hezkuntza legea eta hauteskunde giroa

Hezkuntzari buruz Gasteizko Legebiltzarra iritsiko den proposamenak arreta piztu du aste honetan. Duela urtebete baino gehiago erreforma bideratzeko egindako hitzarmena sinatu zuten lau aldeek hitz egin dute Gobernuak lege proiektua onartu ostean. EAJk, PSEk, Elkarrekin Podemos eta EH Bilduk sinatu zuten akordio hura eta oraingo lege proiektua haren ondorio da, nahiz eta oraintxe lau indar politiko horiek egiten dituzten irakurketak arras ezberdinak diren. Batzuentzat, ezberdintasunak ezberdintasun eta egin beharreko hobekuntzak gorabehera, hitzarmen hari erantzun dio oraingo proposamenak, eta beste batzuentzat, berriz, oinarritzko hitzarmena hondatu baino ez da egin.

Lau indar horietatik bi gobernu dira eta beste biak, oposizio. Hala ere, ezberdintasunak ez dira ardatz horretan azaldu, oposizioko bi alderdiek balorazio erabat ezberdinak egin baitituzte, eta gobernuak kideen artean ere ika-mika moduko bat piztu baita.

Bistan da hauteskunde giroak eragin zuzena duela horretan guztian, nahiz eta salbuespen nagusi bat dagoen. EAJ eta EH Bildu izango dira oraintxe maiatzako hauteskundera begira lehiakide nagusiak, baina horrek ez du eragin gai honetan, ez du elkarren artean mokoka aritzea ekarri, oraingoz bederen. Oso esanguratsua izan zen asteazkenean EH Bilduko Pello Otxandianok prentsa aurrean egindako balorazioa. Malgutasuna azaldu zuen, eta badirudi hori ez dela ahuldadetzat hartu.

Elkarrekin Podemos, aldiz, kontraktasun osoa azaldu nahi izan du. Tinko agertzea ez da beti, baitezpada, indarraren seinale. Elkarrekin Podemos ez dago egoera onean Euskal Herrian, Estatu mailako haizeak ez diolako garai bateko hauspoa ematen eta ez duelako

inoiz Euskal Herrira egokitutako berezko lerrorik erroztzea lortu. Nazio auziari –eta hezkuntzan hori ere badago– nola eutsi ez dakien betiko ezker minoritarioaren oinarriko agertzen da. Garai emankorrenetan Pablo Iglesiasek izandako mezuak –lehen indar bihurtzeraino Euskal Herrian– orain bertakoek dutena baino ausartagoak izateak zer pentsatua eman behar ko lieke.

PSEren jokabideak sorpresa eragin dio Bildarraitzi, gobernu kideen artean adostasuna erabatekoa zela pentsatzen baitzuen. Sorpresa gutxi dago, ordea, alderdi horretan euskararen gaian, bereziki hauteskunde garaian. Aurrekoetan ere ez du inolako kezkarik izan auzi hau modu zatarrenean erabiltzeko. Batek baino

Interes partikularrak gorabehera, ardurak eskatzeko garaia da. Hezkuntzarena gure herrian lehen mailako erronka baitugu, korapilo handiak dituen

gehiagok izango du gogoan kanpaina baten erdian plazaratutako “Euskera en libertad” bideo famatu hura. Izenburuak beste zerbait esaten bazuen ere, euskara enplegu publikora iristeko eragozpentzat jotzen zuen.

Hauteskunde zikloaren testuingurua ez da, horrenbestez, halako eztabaidetarako egokiena. Ezin da ahaztu, bestalde, sindikatuek eta gizarte eragileek ere ekarpena egin behar dutela, eta hor ere, alderdietan bezalaxe, posizio eta interes ezberdinak ikus daitezke.

Interes partikularrak gorabehera, ardurak eskatzeko garaia da. Hezkuntzarena gure herrian lehen mailako erronka baitugu, eta korapilo handiak askatu behar baitira; besteak beste, segregazioa borrokatzeko eta euskara sustatzeko. •

JATE HUTSA BAINO ASKOZ GEHIAGO

Slow Food Arabak Feli Arreguiri eman dio Urrezko Barraskiloa saria, elkartearen balioak hedatzeagatik

Elikadura beharra da, eta gozamenare ere izan daiteke, osasunarekin lotu daiteke, baita lurrarekin eta haren zaintzarekin ere... Hala ulertzen du Slow Food mugimenduak.

80ko hamarkadan sortu zen, Italian, mugimendu hori, «elikadura ondarea babesteko», *fast food* edo jan azkarreko jatetxeak hedatzen hasi zirenean. Jende askok betiko jatetxe txikietara joateari utzi zion, haietako asko itxi ziren eta tokiko produktuei lotutako elikadura subiranotasuneko katea eteten hasi zen. Hori zela-eta, Slow Food sortu zen.

Convivium hitzak festa, dibertsioa, oturuntza esan nahi du, eta tokiko slow food elkartearen izena ere bada, haien filosofiarekin adierazpen gisa. Mugimenduaren gune nagusia osatzen dute mundu osoan dauden ia mila *convivium*ek. Tokiko elkarte horiek ekoizleekin elkarlanean jarduten dute, elikagai tradizionalak babesteko kanpainak egiten dituzte, dastaketak eta mintegiak antolatzen dituzte, bertako elikagaiak sustatzen dituzte, nazioarteko ekitaldietan parte hartzen dute eta dastamenaren heziketa lantzen dute eskoletan. Horrekin guztiarekin batera, eguneroko bizitzan plazera eta kalitatea estimatzea sustatzen dute.

SLOW FOOD ARABA

2005ean sortu zenetik, Slow Food Araba *convivium*ak era aktiboan parte hartzen du lurralde historiko horretan egiten diren adierazpen gastronomiko guztietan, slow food

filosofia bazter guztietara eramanez, tokiko kalitatezko produktuak sustatuz eta ingurumena eta biodibertsitatea babesteko ardura duten ekoizleei lagunduz.

Ohiko elikagaien dastatze tailerren bidez, kontsumitzaileak produktu bakoitza hautatzeak duen garrantziaz kontzientziatzen saiatzen dira, baita dastamen heziketa sustatzen ere. Ekoizleekin harremanetan jartzeko bisitak eta txangoak egiten dituzte, produktuak ekoizteko eta merkaturatzeko dituzten arazoekin berri izateko. Horretarako, informazio zuzena lortu nahi dute, egungo eredu horrek, gero eta gehiago, sukaldaritzako estandarrak eta elikadura ohiturak inposatzen dituzten enpresa talde bakan batzuetan biltzen du elikagaien arloan erabakiak hartzeko ahalmena, jendartearen kultura eta elikagai aniztasunaren zati handi bat murriztuz eta are ezabatuz ere.

Slow Food Arabako presidente Josean Arberas Salazarrek adierazi duenez, kolektiboa erabat irekita dago ekoizle txikiei, sukaldariei eta herritar guztiei eragiten dien ereduaren krisiaren diagnostikoaren aurrean beren kezka adierazten duten pertsona guztientzat: «Eredu horrek eskakizun berriak garatu behar ditu, bai elikagaiak ekoizteko, bai horiek platerera eramateko, eta ingurumena, natura, landa paisaien aniztasuna, biodibertsitatearen iraupena eta elikagai segurtasuna eta subiranotasuna errespetatzeko erronkei erantzuten saiatu behar du».

JENDARTEA / Xabier IZAGA GONZALEZ

Slow Food mugimendua 1980ko hamarkadan abiatu zen, «fast food» edo jan azkarreko industria hedatzen hasi zenean. 2005ean Slow Food Araba sortu zen filosofia berari helduta: ekoizle txikien, elikadura subiranotasunaren, biodibertsitatearen alde, baita plazera eta kalitatea sustatzearen alde ere.

URREZKO BARRASKILOA SARIA

Joan den martxoaren 26an Aiaraldeko Arcos de Quejana hotel-jatetxean Slow Food Arabak egin zuen Asanblea Orokorrean, Feli Arregui elkarteko kideak jaso zuen Urrezko Barraskiloa saria, «jarduera guztietan parte hartzeko, laguntzeko eta *convivium*aren jarduera guztiak hedatzeko duen prestasunagatik».

Azpian, ortugintza birsortzailea sustatzeko tailerra. Hurrengo orrialdean, Feli Arregui, Urrezko Barraskiloa saria jaso zuena, Slow Food Arabako presidente Josean Arberasekin. SLOW FOOD ARABA

Feli Arreguik egin bezala ekoizle txikiak bistartzen, elkarteak antolatzen dituen jardueren inguruan era isilean eta ezkutuan lan egiten dute nentzako aintzatespena da. Lan hori ez dute saria eskuratzeko egiten, ordea, inork ez baitu bere burua hautagai gisa aurkezten. Zuzendaritza Batzarrak erabakitzen du urtero nork jasoko duen. Arreguik hainbat urte daramatza elkartearen filosofiarekin alde lanean. Ezusteko handia izan zuen bera gogoan izana eta pozarren jaso zuen saria.

Arberasek aipatutako nekazari eta sukaldari txiki horien artean, slow food filosofiarekin ordezkarik nabarmenak daude. Haietako batzuk Urrezko Barraskiloaren jabe dira: hala nola, Luis Angel Plagaro, Sukalki jatetxeko arduraduna; «Lurre-



ra itzulera” lurraren zaintzari erabateko garrantzia ematen dion proiektuaren arduradun Eduardo Urarte –proiektu agroekologikoa, nekazaritza birsortzailea sustatzen duena–, edo Javi Chaves, Abetxukuko La Esmeralda baratzekeko ekoizlea eta «lurraren zaintzaren esanahiaren ordezkari onena» elkartean.

Feli Arregui elkarteko kideak jaso zuen Urrezko Barraskiloa saria, «jarduera guztietan parte hartzeko, laguntzeko eta conviviumaren jarduerak hedatzeko duen prestasunagatik»

«Honek dinamika aldatzen lagundu diezaguke, baina gero guk etxean egiten duguna dago; hozkailua beti plastikoz bildutako produktuz beteta... Kontua da doi erostea»



San Prudentzio jaien bezperan, sari horrek Arabako zaindariaren festarekin zerikusia izan dezakeela pentsa lezake arabar batek baino gehiagok, barraskiloak jatea, zizak bezala, garai honetako tradizioa baita herrialdean. Baina ez: slow food elkartearen sinboloa da, eta ez du jatorri Arabako ohitura, barraskiloaren mugimendua baizik, bide motel eta lasaia irudikatzen baitute, «urrunera iristeko».

«GUTXIAGO JAN, BAINA ONDO»

Slow food ez da berrikuntza-aren aurkakoa, eta bere jarduna ez da harekin bateraezina. Nekazari eta abeltzainek lan tresna berriak eta teknologia berriak erabiltzen dituzte. «Kontua ez da duela hainbat mende bezala bizitzea. Kontua da teknologia berriak egokitzea gizakiaren, animalien eta lurraren onerako», dio Aitor Buendiak, elkarteko komunikazio arduradunak.

Slow Food Araba puntako elkarrekin bat da, «eta ez guk diogulako». Etengabe «dastamen tailerrak» egiten ditu, herriarrak parte hartzera eta bertako produktuak ezagutzera gonbidatzen ditu, ekoizle txikien produktuen inguruko azalpena eta are ekoizleak ere ikastetxeetara eramaten ditu, ikasleak azoketara eta ortuetara eramaten ditu... «Pixkanakako lan horrek dinamika aldatzen lagundu diezaguke, baina gero guk etxean egiten duguna dago», dio Buendiak. «Hozkailua beti plastikoz bildutako produktuz beteta badaukagu... Kontua da doi erostea. Gutxiago jan, baina ondo, eta jende guztiak ez du horretarako aukera. Gastronomiaz eta elikaduraz ari gara, eta badago jendea hemen bertan, kalean ikusten ez badugu ere,



oso gaizki pasatzen ari dena. Hor ekin beharko genuke, nabari baita zenbait kolektibotako jendea nola elikatzen den: produktu merkeagoak baina industrialak janez», gaineratu du.

Filosofia horretan, elikadura subiranotasunaz gainera, desazkunde eta nekazaritza birsortzailearen aldeko apustua ere badago, «betiere ekoizle txikiak bistaratuz». Antolatzen dituzten ekitaldiek ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harremanak sendotzeko aukera ematen dute, «elkarrekiko errespetuan eta ezagutzan oinarritutako etorkizuna finkatzeko».

Buendiak nabarmendu nahi du Araba, Bizkai eta Gipuzkoan hainbat elkarrekin dituela gaur egun mugimenduak: Slow Food Donostia “German Arrien”, Gipuzkoan; Slow Food Bilbao-Bizkaia, Makilaren Kofradia-Slow Food, Bilbao Ostalaritza Goi Eskola eta CittaSlow, Bizkaian, eta “HortiReg”

Elikagaien Komunitatea, Araban, Slow Food Arabaz gain.

BIODIBERTSITATEAREN ALDEKOA

Biodibertsitatearen aldeko Slow Food Fundazioak proiektu ekogastronomikoak kudeatzen ditu. Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, Slow Food mugimenduak sortua, eta nekazaritza-biodibertsitatearen eta tradizio gastronomikoen munduko ondarea defendatzen duten proiektuak antolatzen eta babesten ditu.

Fundazio horren diru ekarpen zuzenak batez ere munduan gutxien garatuta dauden herrialdeetara bideratzen dira. Herrialde horietan, biodibertsitatearen kontserbazioak bizi kalitatea handitzea ez ezik, bizitzak, komunitateak eta kulturak salbatzea ere esan nahi du. Esate baterako, Afrikan 10.000 baratze prestatzen ari dira, «hango jendeak aukera izan dezan bere elikaduraz arduratzeko, inoren mende egon gabe».

AITOR BUENDIA

KAZETARIA

«Nire programako ibilbidearen helburu nagusia ekoizle txikiak bistaratzea da; handiek badute publizitatea egiteko nahikoa diru»

Eibartarra. Gasteizen bizitzen hogeit urte baino gehiago daramatzan kazetaria. Larunbatero arratsaldeko bostetan Radio Vitorian eta jaiegunetan ordubatean Radio Euskadin "La ruta slow" irratsaioa gidatzen du. 2017ko Euskadi Gastronomía Saria jaso zuen kazetaritza lan onenagatik.

Su motela ere bai?

Bai. Slow Food ez da hori, edo ez hori bakarrik, baina finean betiko sukalden alde egiten dugu, gure sukaldarien, produktuak ondo kozinatzeke denbora ematen dutenen alde... Hala ere, bada fast food bat osasungarria izan daitekeena, badira jan batzuk denbora laburrean landuak; esaterako, hainbat pintxo, baina produktu onekin eginak.

Nola egin zinen slow food-zale?

Horrek zerikusia dauka ondo jan eta edatea gustuko izatearekin. Bakoitzak bere ibilbidea du. Ni tabernarien semea naiz. Eibarren Ibai-Ondo taberna geneukan, eta bertan hazi nintzen ni; bokatak, bazkariak, kafeak, ardoak inguruan... Ostalaritza giroan, jaiotzetik. Eta nik uste dut horrek markatu behar zaituela, amaren sabelean zaudenetik. Beti gustatu izan zait janariarekin gozatzea, baina aldaketa bat izan nuen gure lehenengo alaba Maialen jaio zenean; orduan egin nuen slow fooderako pausoa. Zergatik? Gure txikiak jaten



Aitor Buendia, Gasteizko Alde Zaharreko taberna batean. Jaiak FONTANEDA | FOKU

zutenarekiko ardura hartzen hasi ginelako. Orduan hartu genuen jaten dugunaren inguruko kontzientzia, elikagaiak nondik eta nola datozen...

Gastronomia eta haren inguruko kontzientziarioa lanbide egin zenituen.

Neure lagun Luis Etxebarriarekin irrati programa bat egiten nuenean, Slow Food mugimendua ezagutu nuen, eta niretzat eta mugimendu horretan gaudenontzat nazioarteko erreferentzia den gizon bat ere ezagutu genuen: Alberto Lopez de Ipiña. Slow Food Arabako presidente izan zen, duela zenbait urte hil zen, eta hura zen 2000ko hamarkadan, oraingo presidente Josean Arberasekin eta beste batzuekin batera, mugimendu honetan ziharduena. Niri atentzioa eman zidan produktua eta ekoizleak egiten zuen defentsak, eta orduan hasi nintzen miresten eta flipatzen Arabako produktu aberastasunarekin. Ni Gipuzkoatik etorri berria nintzen, Debabarreneko inguru industrial baina landatarretik... Eta Arabara etorri eta aurkitu nituen Mendialdeko moxala, eztiak, gure txakolina, gure Arabako errioxa... Orduan ezagutu nuen Slow Food eta gero hor sartu nintzen bete-betean. Ondoren "La ruta slow" programa sortu zen.

2012an hasi zinen, Radio Euskadin, ezta?

Bai. Nik euskal irrati publikoari eskaini nion ideia, onartu egin zidaten eta Radio Vitorian hasi nintzen. Ondoren, Radio Euskadik beste herrialdeetara zabaltzen zuen eta hor jarraitzen dut, oso pozik.

Irratsaioeko bidea zuk egiten duzun ibilbidea da?

Izena emazteak eta biok erabaki genuen Ondarroa eta Saturraran arteko pasealekuan, baina ibilbidea ez da fisikoa. Halako produktua ezagutzeko nora joan naitekeen, edo olioak ezagutzera... ibilbideak sortzen ditut.



Aitor Buendia, Euskadi Gastronomía Saria jasotzen; eskuinean, Slow Food Arabaren dastatze tailer bat. Slow Food Araba



Ordizian izan berri zara, Artzain Egunean.

Bai, ibilbide horren barruan, helburu nagusia ekoizle txikiak bistaratzea da. Handiek badute nahikoa diru, hedabide handien bidez edo kanpainen bidez, publizitatea egiteko. Gainera, programa euskal irrati publiko batean eginda, ekoizle txikiak bultzatzeko betebeharra daukadala uste dut. Hortik aurrera, kazetari gisa, herritarren, entzuten dutenen aldeko lan didaktikoa egin behar dudala uste dut, ibilbide horretan zehar joan daitezzen, sasoko eta bertako produktuak kontsumitzeko ibilbidean, gure merkatu txikien aldeko apustua egin dezaten, arrandegi txiki hori... Eta oso ondo egiten ari direla esateko modua eurei erostea da; ahal den neurrian, behintzat. Horrela lagunduko diegu; bestela, ez dago zer eginik, dena industrializatua nahi duen horren aurrean.

Salneurriari dagokionez, zer da garestia eta zer merkea? Elikadura industriaren logikaren ondorioz, milaka kilometroko distantziatik datozen produktu asko ikaragarri merkeak dira; esaterako, esparrago batzuk, Nafarroako jatorri deiturakoak baino merkeagoak. Nola da posible? Slow food filosofiak hiru hanka ditu:

«Kazetari gisa, herritarren, entzuten dutenen aldeko lan didaktikoa egin behar dudala uste dut»

«Gazteen obesitatearen kausetako bat elikadura industriak egin duena da, estandarizazioa, eta horrekin batera, momentuan berotu eta jateko ohitura hori»

«Gure txikiek jaten zutenarekin arduratzen hasi ginenean egin nuen slow fooderako pausoa»

ona, garbia eta bidezkoa; hau da, kalitatekoa, ahal bada ekologikoa edo pestizidarik gabekoa. eta produktua ekoiztu duenari ordainketa justua egitea. Lekutatik datozen zainzuri horiek batek daki nola ordaintzen zaizkien hango ekoizleei, eta gero hona iritsi arteko karbono aztarna hori... ez da jasangarria. Eta hemen ditugunak, garestiak dira? Ez, ateratzen dituztenek egiten duten lana ikaragarria delako.

Jende asko bat dator, nonbait, slow food filosofiak transmititzen duen horrekin. Gazteen ohituretan kontzientzia hori nabari da?

Bi gauza. Lehenik, berdin dio nola esaten zaion: «slow food» edo bestela. Gure bandera ez da inolako lidergoa, baizik eta lurra, eta garrantzitsuena helburua da. Slow Food-ez gainera badaude norabide berean ari diren beste hainbat kolektibo ere, hemen eta mundu osoan. Gastronomiako Euskal Akademiaren eta Eusko Jaurlaritzaren Sarien harira, ez da alde batera utzi behar, besteak beste, Jakitea Sukaldarien Elkartearen egiten ari den lan handia; elkarte hori zuzentzen duen taldeak Xabier Zabaleta du buru eta Gipuzkoatik abiatuta, beste herrialdeetara zabaltzen ari da bere

jarduna. Edo Ekolurra Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren lana.

Bigarrenik, kezkatzeko modukoak dira gazteen obesitate datuak. Horren kausetako bat elikadura industriak egin duena da, estandarizazioa, eta horrekin batera, momentuan berotu eta jateko ohitura hori; mahaian lasai eseri eta betiko gisatua, arrain zopa... jateko ohitura galdu izana.

Futbolzalea zara?

Eibar-Gasteiz elkarteko presidentea naiz. Hala ere, kolektibo futbolzalea baino zerbait gehiago gara; Eibar taldea gustatzen zaigu, baina batez ere balioak, hiri txiki horretan edoski ditugunak. Eta orain adi gaude. Izan ere, joan den urtean, begira nola amaitu zuen futbol taldeak... Gure ilusioa litzateke datorren urtean Alaves eta Eibar Lehenengo Mailan izatea. Eta oso harreman ona dugu Alaveseko jendearekin. Eibartik datorren jendea partidarako hemengoarekin elkartzen da eta berdin hemengo hara doanean; elkarrekin joaten dira partidara. Horrelakoetan, gero, partida gutxienekoa izaten da. Inportanteena alde zurreko giroa da: errugbian «hirugarren aldia» esaten zaiona.



Amaia Ballesteros

IRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK



RIFEKO GERRA INOIZ ZABALDU GABEKO MALETA BATEAN, URRETXUN

Amagoia MUJKA TELLERIA


Urretxuko garaje batean gordetako maleta batean, album bat eta barruan ehundik gora negatibo, sekula positibatu gabeak. Eta hobe horrela, inoiz positibatuak izan balira, ez baitziren egunotaraino iritsiko; glizerinaz eginak daude eta material hori erraz eta azkar galtzen da. Beraz, bada harritzekoa eta poztekoa argazki negatibo horiek nahiko egoera onean iritsi izana gaur egunera arte.

Maleta batean 138 argazki, inoiz argia ikusi gabeak. Maleta hori garajea gordetzen zuen urretxuarrak hil aurretik etxekoei esana zien Berriochoarena zela eta haren senideei eman behar zitzaizela. Berriochoa nor zen deskubritu behar, ordea. «Urretxuko familia bat nirekin harremanetan jarri zen, istorio hori kontatuz. Ni Berriochoa horien ondorengoa naiz eta ikertzen hasi nintzen, nor izan zitekeen. Ordura arte ez nekien ezer familiako argazkilari horren inguruan». Andoni Lubaki argazkilariak jaso zuen bere aurrekoena zen argazki maleta hori, 2017. urtean.

Eustaquio Berriochoa Elgarresta Urretxun jaio zen 1899. urtean (1987an zendu zen). Ingeniari zibila zen ikasketaz eta lanbidez eta Estatuko zein Euskal Herriko hiri askoren egituren modernizazioan parte hartu zuen. Hori bazekiten bere ondorengoek. Ez zekiten, ordea, argazkilaritza izugarri maitate zuenik eta ahal zuen toki eta egoera gehienetan irudiak jasotzen zituenik.

«Gure birraitonaren anaia zen eta, hainbat egoera tarteko, gure aitona zaindu zuen. Oso gertukoa zen gure etxekoentzat, baina ez zeukaten bere argazkilari jardunaren berri. Eustaquio Urretxun jaio zen 1899. urtean. Nire herenaitona –Eustaquioren aita– Urretxuko alkate zen orduan eta familia enpresa bat bezala ikusten zuela esaten dute. Semeak eraikitzaile, ingeniari, diseinatzaile... egiten zituen eta alabak, diruzain. Nire birraitonari eraikitzaile izatea egokitu zitzaion eta Eustaquiori, ingeniari zibil. Madriler

«Rif, gerra koloniala, Eustaquio Berriochoa Elgarrestaren ikuspegitik» argazki erakusketa zabaldu dute asteon Urretxun, Pagoeta Gune Soziokulturalean. Maleta batean topatutako argazki sorta batetik abiatuta, Berriochoaren kamerak jasotako Rifeko gerraren kronika ezezaguna da.



Eustaquio Berriochoa Elgarresta, Melillara iritsi zenean. Eustaquio BERRIOCHOA ELGARRESTA

joan zen karrera ikastera eta uste dugu han hasi zela argazkilaritzara gerturatzeko. Uste dugu aitak argazki kamera bat oparitu ziola, Carl Zeiss kamera bat, 1917. urtean egindakoa. Nik daukat kamera hori orain. Kameraren pista jarraituta, jakin dugu Alemanian egiten zirela garai hartan. Eta Urretxun agertu dira gure familiako argazki zenbait, gure ustez kamera horrekin eta Eustaquiok berak egindakoak». Irudi horietan ikusten da argazkiarekin esperimentatzeko gogo eta gustu bat, gaur egungo filtroen antzekoak modu artisaun egiteko saiakera bat.

Baina gatozen maletara, espero gabeko altxorra agertu baita bertan: Rifeko gerran 1923. urtean egindako ehundik gora argazki, gerraren, soldaduen eta Rifeko biztanleen eguneroko egoerak jasotzen dituztenak. Inoiz errebelatu gabeko argazkiak eta inoiz ikusi gabekoak, beraz.

«Harrigarria da pentsatzea duela ehun urte Urretxuko seme batek kamera bat sartu zuela Rifeko gerran». Eustaquio Berriochoa soldadu joan zen Rifera; gerrak soldaduska garaian harapatu zuen, beste milaka soldadu gazte bezala, asko Euskal Herriatik eramana. Berez zegokiona baino beranduago joan zen gerrara, aita libratzen saiatu zelako ziur aski. Horregatik kostatu da pixka bat Berriochoa Rifeko gerran kokatzea 1923an, berez lehenago egon behar zuelako. Jasotako informazioaren arabera, Nadorren, Annualen eta Al-Hoceima inguruan ibili zen.

«Rifeko gerran debekatuta zegoen kamerak eramatea. Militarrek bere kontratatutako argazkilariak zeuden eta haiek agindutako egoerak jasotzen zituzten, propaganda. Eta soldaduek idazten zituzten eskutitzak ere kontrolatuta zeuden, ezin zuten Rifeko biztanleen berririk eman».

Maleta horretan agertu diren argazki gehienak datatuta daude eta argazki oina daukate, gutxi batzuk izan ezik. «Bada maletan agertu den argazki sorta bat, Frantziatik etorria, ohar guztiak frantsesez baitaude. Paisaien argazkiak dira, baina paketeak bazuen berezita-



Rifeko emakumeak zabor artean, jaki bila. Eustaquio BERRIOCHOA ELGARRESTA



Guruko rifertar bat. Eustaquio BERRIOCHOA ELGARRESTA



Arruzban, lubakia defendatzen. Eustaquio BERRIOCHOA ELGARRESTA

sun bat, barrubigun bat bezala. Atzeko parte hori kontu handiz ireki eta Rifeko gerraren beste argazki batzuk topatu genituen, ezkutatuta. Rifeko biztanleen bizitza jasotzen duten argazkiak dira. Eustaquiok bazekien horiek zabaltea debekatuta zegoela eta horregatik ezkutatuko zituen seguruenik».

Erabiltzen zuen materiala oso fotosentikorra zen –glizinarekin eginak daude– eta horrek azkar errebelatzea eskatzen zion, negatiboa ez hondatzeko. «Glizinarekin lan egitean, oso ordu gutxi dituzu errebelatzeko. Beraz, han bertan egiten zituen negatiboak, auskalo zein baldintzatan. Argazkietan sumatzen da berak libre zeuzkan tartetan egiten zituela. Soldaduak ikusten dira, atsedean tartetan, etxekoei eskutitzak idazten. Hori debekatuta zegoen eta ziur aski ezkutuan aritzen zen».

«Rifeko gerran debekatuta zegoen kamerak eramatea. Militarrek bere kontratatutako argazkilariak zeuden eta haiek agindutako egoerak jasotzen zituzten, propaganda. Soldaduen eskutitzak ere kontrolatuta zeuden»

Rifeko gerraren aurpegi nahiko ezezaguna erakusten dute argazkiek. «Bertakoengana gerturatzen zen eta argazkiak egiten zizkien. Irudiak ikusita sumatzen da bertakoekin asko egoten zela eta errespetuz tratatu diturudietan»

RIFEKO GERRAREN AURPEGI EZEZAGUNA

Rifeko gerraren aurpegi nahiko ezezaguna erakusten dute argazkiek. «Bertakoengana gerturatzen zen eta argazkiak egiten zizkien. Irudiak ikusita sumatzen da bertakoekin asko egoten zela eta errespetuz tratatu diturudietan. Argazki oin askotan aipatzen du

Ejea izeneko beste soldadu bat. Badirudi elkarrekin alde egiten zutela base militarretik eta bertako herrietan barrena ibiltzen zirela. Argazki oso gizatiarrak egin zituen eta bera ere agertzen da haietan, egungo *selfie* modukoak eginez. Izan ere, bere kamerak tenporizadorea zeukan eta hori baliatzen zuen argazkia prestatu eta bera ere ateratzeko».

Andoni Lubakiren hitzetan, Eustaquio Berriochoa aitzindaria izan zen. «Batetik, gerrara argazki kamera oso handiak eramaten ziren, militarren aldeko propaganda egiteko. Eustaquiok, garai hartan, formatu txikiko kamera bat eraman zuen, ziur aski erosoago aritzeko. Eta berak prestatzen zituen negatiboak glizinaz. Eta gerrari buruz eskaini zuen ikuspuntuan ere aitzindaria izan zen. Seguru asko, Urretxutik joanda, arreta ematen zioten lur haietan ikusten zituen herritarrek eta ohi-turek. Urretxun 1923. urtean 1.500 biztanle edo izango ziren, herri txiki bat zen. Bere semeak kontatzen du aitak askotan aipatzen zuela Urretxutik Madrilerara ikastera joan zenean ez zekiela gazteleraz, klaseetan ikasi behar izan zuela. Pentsa zer nolako kontrastea herri txiki batetik joanda. Eta Rifera joan zenean, kontraste hori are handiagoa zen. Argazkietan agertzen dira Rifeko merkatuak, eguneroko bizitza, bertako herritarrak... berari arreta ematen zion eguneroko bizitzak. Eta nahiko modu duinean agertzen dira argazkietan bertakoak; erretratuak dira kasu askotan, aurrez aurre egindakoak».

Eustaquio Berriochoaren bi seme bizirik daude oraindik. «Semeek ez zeukaten aitaren argazkien berri. Baina



Ezkerreko partean, Eustaquio Berriochoa bera eta bere partidako kideak. Eskuin aldean, Rifeko neskato bati egindako erretratua. Bertako biztanleengana gerturatzea maite zuela sumatzen zaio Berriochoari argazkietan. Eustaquio BERRIOCHOA ELGARRESTA





Cugutz. Rifertarren bizargina. Eustaquio BERRIOCHOA ELGARRESTA



Rifeko emakume bat, balantza batekin. Eustaquio BERRIOCHOA ELGARRESTA



Dar Gueldani. Rifeko hiru neska. Eustaquio BERRIOCHOA ELGARRESTA

kontatzen dutenez, inoiz ez zuen Rife-ko gerraz hitz egiten. Semeek irudipe-
na daukate zerbait oso txarra gertatu
zitzaiola eta nahiago zuela ez hitz
egin».

«FOTOKAZETARITZAREN LEHEN URRATSAK»

Juantxo Egaña argazkilaria eta doku-
mentalista grafikoa da eta bera da egu-
notan Urretxun dagoen erakusketaren
komisarioa. «Argazki ikusgarriak dau-
de. Fusilatze bat, soldaduak lubakietan,
Rifeko bertako jendearen bizimodua...
oso ikuskera berezia dauka argazkila-
riak. Aurretik ikusiak nituen Rifeko ge-
rraren inguruan beste euskal argazkila-
ri batzuek egindako lanak; Ricardo
Martirenak, adibidez. Martik ere oso
ikuspegi gizatiarra zeukan, Berrio-
choak bezala. Martik jaso zuen, adibi-
dez, Pasaiatik abiatu ziren soldaduen

agurra, argazki oso hunkigarrietan. Be-
rriochoaren lana ikusi nuenean, ezus-
tekoa hartu nuen eta nolabait gerora
etorri zen fotokazetaritzaren lehen
urratsak sumatu nituen; 1936ko gerra-
ko fotokazetaritzaren aitzindaria dela
esan daiteke».

Rifeko gerraren inguruan orain ar-
tean iritsi izan diren argazkiak bestela-
koak dira. Soldaduska egiten ari ziren
eta gerrara bidaliak izan ziren solda-
duen irudiak izan dira nagusiki. «21
urte zituztela gerrara joatera behartu
zituzten gazteak, haien gerra ez zela
sentitzen zutenak. Gerra hori gerora
altxamenduan parte hartu zuten mili-
tarrek gidatu zuten eta oso gerra kru-
dela izan zen. 1921. urtean, uztaila-
abuztua bitartean, 12.000 soldadu
espainol hil ziren Rifeko gerran.
12.000 gazte, babesgabe gerrara hiltze-

ra bidaliak, tartean euskaldun asko.
Hildako gazte horiek ez zeukaten zeri-
kusirik gerra kolonialista eta inperial
harekin. Erabili zituzten gerra tekni-
kak ere oso bortitzak izan ziren. Lehen
mundu gerra amaituta, ziape-gasak
debekatuta zeuden, baina espainolek
Rifeko gerran erabili egin zituzten»,
zehaztu du Egañak.

Urretxuko Pagoeta Gune Soziokultu-
ralean ikusgai dagoen erakusketan ar-
gazki gehienak Berriochoarenak dira,
baina badira garaiko beste euskal ar-
gazkilaria batzuen lanak ere. Baita gara-
iko egunkari, aldizkari eta bestelakoeta
ko Rifeko gerraren inguruko albisteak
ere. Eta argazki erakusketari hitzak ja-
rri dizkiote Karlos Zurutzak, Joseba
Sarrionandiak eta Clemente Bernadek.
Datorren maiatzaren 14ra arte egongo
da zabalik argazki erakusketa.



Ezkerreko irudian, soldadu bat,
atseden tarte batean, eskutitz bat
idazten. Eskuin aldean, egile
ezezaguna duen Rifeko gerrako
argazki oso latza.
Eustaquio BERRIOCHOA ELGARRESTA
eta egile ezezaguna





Itziar ELIZONDO IRIARTE
Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Ordu-aldaketarekin orduan zer?

Gizakiok bana gaitzaketen talde ugarien artean, ordutegi-aldaketa ondo edo gaizki darabagunak daude. Urtero matraka bera birritan. Batez ere, gorroto dugunontzat. Eta, batez ere, udako ordutegira igarotzera behartzen gaituztenean. Nahiz eta goiztiarra izan, lehenengo bi asteetan kosta egiten da ohetik jaikitzea. Beranduago argitzen du, gorputzak argia behar du eguna energiaren hasteko, baina ordu ofizialak ez dio utziko dagokion mementoan argiari leihotik sartzen. Eta hori gutxi balitz bezala, inposatu zaigun ordu-eremuak ez du zentzurik. Vigok (Galizia) Varsoviaren (Polonia) ordu bera du, 3.200 kilometrora egon arren, baina ordubete gehiago, 150 kilometrora dagoen Portotik (Portugal). Zentzugabekeria halakoa!

Duela bi urte edo (pandemiarekin beste denbora-arazo bat dugu, alegia, ez dakigu zehazki iragana noiz kokatu, baina hori beste baterako utziko dugu), ordutegi-aldaketaren gaia mahaigaineratu zen. Eta horretan ere gizakiok bana gaitzaketen taldeen artean, Estatu espainolean gehiago zabalak, % 65ek nahiago du ordutegi-aldaketa amaitzea, eta horietatik % 70,9k aukeratzen du udako ordutegia finka-

tzea. Izan ere, negukoan iluntasun orduak luzatzean, tenperaturak jaisteaz gain, jarduera sozialak eta kanpoko ekintzak mugatzen dira. Eta hori ez du inork nahi. Sevillan, Zamoran, Valentzian edo Portugaleten bizi, Estatu honetan partekatzen dugun gauza bakanetako bat da kalean bizitza soziala egitea gustuko izatea. Batik bat, tabernetan. Beno, azken urteetan lagunartean korrika egitea ere bai. Beraz, ez da harriztekoa gehiengoak ordutegi hori nahiago izatea.

Aldiz, aditu gehienek arabera, neguko ordutegia onuragarriagoa da, argi- eta iluntasun-zikloekin hobeto egokitzen delako. Eskola- eta lan-ordutegian argi gehiago jasotzen dugu, kontzentrazioari mesede egiten diona, eta gauez iluntasun handiagoa izateak loak hartzen laguntzen digu.

Nolanahi ere, desoreka ez litzateke horren handia izango lanorduak zentzuzkoagoak izango balira. Zergatik ez gara Europako gainontzeko herrialdeetan bezala bostak arte lanean aritzen? Zergatik ez dituzte enpresek bizitza pertsonala eta lana uztartzeko formula malguagoak abiarazten? Akaso, horrela ikusiko genuke hobe dela eguzkiarekin ahalik eta lerrokatuenik bizitzea. Argiarekin esnatu eta iluntasunarekin gaueko atsedenerako baretu. •



Vigok (Galizia) Varsoviaren (Polonia) ordu bera du, 3.200 kilometrora egon arren. Jagoba MANTEROLA | FOKU

{ koaderno } **Xabier IZAGA GONZALEZ**

Norbere burua ahanztea, bertsio ofiziala... eta egia?

Etxetik irten baino lehen, sarrerak poltsikoan neuzkala ziurtatu nuen. Zinemara bidean, pare bat aldiz egin nuen egiazta-pen bera. Halako batean iritsi nintzen eta berriro sartu nuen eskua poltsikora, sarrerak ukitzeko. Artega baina uste osoan, barrura sartu nintzen, sarrerak atera eta ateko gizonari erakutsi nizkion. Hirugarren aretoa. Arazorik gabe sartu nintzen. Zortzigarren ilarako seigarren eserlekuan jarri eta argiak itzali baino lehen sakelakoa itzali nuen; hasieran abioi moduan jarri nuen, baina segurtasun uhala topatu ez nuenean konturatu nintzen ez nengoela hegazkinean. Bat-batean, zureak egin duela pentsatzen duzuneko bero kiskalgarria igotzen hasi zitzaidan aurpegian gora, eserlekuan ni ez nengoela ohartu nintzenean.

Etxean, sakelakoa bilatu nuen, alferrik, zineman zegoen eta, abioi moduan, edo itzalita; gero eta urdu-riago, ordenagailuari erreparatu nion eta ondorengo eguneko artikulua idatzi gabe neukala gogoratu zitzaidan. Eskerrak neure burua etxean ahaztu zaidan, pentsatu nuen. Eta joatea ahaztuta ikustera joan nintzen filmaren erreseina idazten hasi nintzen. Ikusita ez neukan filmaren erreseina, existitzen ez den film baten ingurukoa, gidoi (txar) baterako ideia izan zitekeena.

Dirudien baino ohikoagoak dira horrelako edo antzeko erreseinak. Pentsa zenbat irakurri ditugun «bertsio ofiziala» deiturapean. Gidoi baterako ideia izan zitezkeen, eta nekez gertakari baten kronika edo deskribapena; hala ere, errealitatearen, egiaren kontaketa bezala aurkeztu ohi dituzte.

Pako Aristi idazlea da eta uste dut idazle gehienek bezala fikzioa gogoko duela, baina egia azaldu eta ulertzen saiatzeko eta ez egia ezkutatzeko. Joan den astean aurkeztu zuen “Irunberri 1990: Arroilaren ne-

garra” liburua, bertsio ofizial horietako baten eraisketa eta egiara hurbiltzeko ikerketa sakon eta zorrotza.

Beste kontaketa ofizial bat, Pasaiako segadarena, sinestezina dela –ez zela hala gertatu– ondorioztatu zuen Lakuako Gobernuak eskatutako txosten batek. Auzi hark bide judiziala egin zuen, bide laburra, ikerketak misterio batekin topo egin baitzuen; hara, operazioan parte hartu zuten poliziak identifikatzeko ezintasunarekin. Guztiak du bere azalpena, ordea: nonbait ere, sarraskian parte hartu zuten poliziei etxean ahaztu zitzaizen beren burua egun hartan.

Inguru honetan batere arrotza ez den fenomeno horrekin egin zuen topo Iñigo Cabacas auziaren ikerketak ere. Gazte bilbotarra hil zuen eraso jo zutenak ere gorputza etxean ahaztu zitzaizela konturatu ziren

Bertsio ofizialak gidoi baterako ideia izan daitezke, baina nekez gertakari baten kronika edo deskribapena; hala ere, errealitatearen, egiaren kontaketa bezala aurkeztu ohi dituzte

egurra banatzen hasi orduko edo, hobeto esateko, amaitu orduko.

Oraindik orain polemika izan da Mikel Zabalza hil zuen operatiboaren arduraduna teniente jeneral izendatu dutela jakindakoan. Zenbait parlamentariok Barne ministro espainiarrari kargu hartuta, guardia zibil horren aurkako ebazpen judizialik ez dagoela erantzun zuen ministroak. Hara, egia judiziala.

Kontakizun ofiziala bertsio ofizialek osatzen dute; zuzenbide estatu batean, gainera, egia judizialak apaindua. Eta fabula hori onartzen ez duena, egia helburu duen kontakizuna eraikitzen saiatzen dena, abi satuta dago. Itsaso harroak abisatuta. •

«Pornografia kontsumitzen duenak indarkeria erotizatzen du»

Emakumeen eta neskatoen emantzipaziorako elkarrekin da Emargi, eta bertako zuzendaria, Amelia Tiganus (Galao, Errumania, 1984). Idazle eta aktibista feminista da. 17 urte zituela proxeneta bati saldua izan zen eta 2002-2007 urte bitartean Estatu espainoleko 40 prostituzio-etxe baino gehiagotan esplotatu zuten.

Orain Emargirekin indarkeria sexualaren kontrako borrokan ari da, eskoletan formakuntzak eskaintzen eta gurasoei hitzaldiak. «Ama asko gerturaten dira hitzaldietara, aitak baino askoz gehiago. Zergatik? Eta ama gehienek esaten dute 'espero dut nire neskatoari horrelakorik ez gertatzea'. Hori nire amak ere pentsatu zuen, hori ama guztiek pentsatzen dute. Baina egunero ehunka neskatok jasaten dute sexu indarkeria. Ez da nahikoa 'ia ez zaion nireari gertatzen' esatea. Zerbait gehiago egin behar da».

«Sexu indarkeriaren, pornografiaren eta prostituzioaren arteko lotura». Hori da azkenaldian eskaintzen ari zaren hitzaldiaren izenburua. Izenburuak berak ikara eman beharko liguke.

Hitzaldi hauek eskaintzen ditudan tokiak gogoetarako eta hausnarketarako espazioak dira, gaur egun oso ugariak ez direnak. Baina ezagutzarako espazioak ere badira. Indarkeriatik libre dagoen bizitza bat bizi ahal izateko, erdigunean tratu ona eta besteekiko konexioa jartzen dituen bizitza bat bizi ahal izateko, beharrezko estrategiak dira ezagutza eta gogoeta. Nire hitzaldietan bizi dugun sistemaren jatorria

joaten saiatzen naiz, arazoaren muina ezagutzeko.

Feministok patriarkal bezala definitu dugun sistema honek ez dauzka 5.000 urte baino gehiago. Esan eta esan ari zaizkigu hau beti horrela izan dela, bizitza horrelakoa izan dela beti, eta ez da zuzena. Paradigma hau ezarri aurretik bizitza oso desberdina zen. Antzinako gizarteetan balio handia ematen zitzaien emakumeei eta haien bizitzei, bizitza emaileak zirela ulertzen baitzuten. Jainkosak goratzen zituzten eta horien alde errezatzen zuten. Inoiz ez da existitu gizarte patriarkalik, emakumeok historian zehar sekula ez baitiegu egin gizonetzkoen haiek sistema patriarkalean guri egin digutena. Baina antzinako gizarteetan bizitza askoz parekideagoa zen.

Une batean gizartea aldatzen hasi zen. Nomadak, ehiztariak eta biltzaileak izatetik lehen kokalekuak sortu eta nekazari eta abeltzain izatera pasatu ginen. Lurra okupatzen hasi ginen, animaliak etxekotzen... eta une horretan emakumeak gizonen jabetza izatera pasatu ginen, haurrekin, esklaboekin, animaliekin eta lurrekin batera.

Hor hasten da zabaltzen maskulinitate eredu jakin bat. Horren arabera, mutikoei umetatik ukatzen zaie gupida, konexioa edota enpatia sentitzeko gaitasuna, oso heziketa bortitz eta gogorraren bidez. Eta neskatoei besteak zerbitzatu erakusten zaie, besteentzat existitzen. Generoen arabera soziazioa da hori.

Gizartea zatitzeko modua da eta sexu-indarkeria jatorri horretan bertan kokatzen da. Emakumeak banatu egiten dira, jabetzen modura. Esparru

pribatuan ezkontzen bidez banatzen dira eta esparru publikoan, prostituzioaren bitartez. Gure gaitasun sexual eta ugalkorren arabera hartzen gaituzte mendeen.

Orain asko aipatzen dira «maskulinitate berriak». Ez zait gustatzen, berriak izateak ez baitu derrigor esan nahi hobek izango direnik. Baina ez genuke ahaztu beharko historian barna beti existitu direla emakumeen kontrako indarkeria erabiltzeari uko egin dioten gizonetzkoak. 'Benetako gizonen' klubekoak izateari uko egin zioten eta ondorioz gogor zigortuak izan ziren. Eta gure gaurko mutikoei ez dituzte erreferenteak betiko maskulinitate horretatik aparte.

Maskulinitatea eta feminitatea eraikitzeke modu tradizionalak dira orain aipatu ditudanak.

Baina gaur egun erreminta garaikideagoak daude: Internet, kasu.

Gaur egun Internet, sare sozialak eta antzeko erremintak ditugu eskura eta egoerak buelta erradikala eman du. Emargi elkartean, kontzientziazioaz eta sentsibilizazioaz gain, ikerketa ere egiten dugu. Hitzaldiak eta tailerrak eskaintzen dizkiegu haur eta gazteei eta haiekin egiten dugu ikerketa. Garbi ikusten dugu neskatoei zer erakusten eta barnerarazten zaie: zure balioa zure gorputza eta intimitatea publikoki erakusten duzunaren arabera izango da. Bere existentzia besteen aisialdirako, besteen dibertsiorako ekintza bihurtu behar dutela sinetsarazten zaie. Emakumeak gizonak dibertitzen dituztenak direla sinetsarazten zaie. Eta hori garbi ikusten dugu neskatoek sare sozialak erabiltzeko du-

AMELIA TIGANUS

IDAZLE ETA EKINTZAILE FEMINISTA

Adin txikikoen artean gertatzen ari diren sexu indarkeria kasuek izoztuta eta txikituta utzi dute jendartea. Tiganusek neska-mutikoen sexu heziketan jartzen du lupa. Zortzi urte dituztenerako nahi gabe sarean pornografiarekin topo egiten duten belaunaldien aurrean gaudela ohartarazi du.

ten moduan: eduki pribatua partekatzen dute ia egunero. Mutikoak, aldiz, eduki horren kontsumitzaileak dira.

Jarrera horiek dira geroago ikusiko dugunaren hasiera: deshumanizazioa, despertsonalizazioa eta sexu indarkeriaren naturalizazioa. Izan ere, neska-mutikoen sexu indarkeria sexu bezala ulertzen dute, industria pornografikoaren eta proxenetaren esku utzi baitugu gure neska-mutikoen sexu heziketa.

Estatu mailako azken ikerketek pornografia kontsumitzen hasteko adina zortzi urtetan kokatu dute.

Bai. Zortzi urtetik aurrera, neska-mutikoak irudi oso bortitzak jasotzen hasten dira eta horietan naturalizatzen den ideia oso arriskutsua da: emakumeen kontrako erasoak sexua dira. Azkenaldian iristen ari zaizkigun albisteak, adin txikikoak adin txikikoak bortxatzen eta erasotzen, testuinguru horretan kokatu behar dira. Horrek atentzioa eman beharko liguke, oso pornifikatuta dagoen gizarte batean bizi baikara.

Dena bekatua zen garai batetik pornografia erabat normalizatuta dagoen beste batera pasatu gara. Mutur batetik bestera. Eta hala eta guztiz ere, sexualitateak gai tabua izaten jarraitzen du, ez baitugu hausnartzen eta hitz egiten sexualitateak gizakien bizitzetan daukan garrantziaz eta inpaktuz. Gaur egun fribolizatu egiten da beste norbaitekin sexua izatea, badirudi norbaitekin kafea hartzea bezalakoa dela eta ez da horrelakoa. Eta hori estatu espainiarrean nagusi den kultura pornografiko eta prostituzionalarekin lotuta dago. Espainia da prostitu-



Argazkiak: Aritz LOIOLA | FOKU

«Gure ardura da, helduak garen neurrian, ez bakarrik gure neska-mutikoak heztea, baita babestea ere. Ezin ditugu babesik gabe utzi indarkeria horren guztiaren aurrean»

zio-kontsumitzaile nagusia European eta hirugarrena, munduan. Dirua ordaintzen duten sexu-erasotzaileen ikusezintasunaren aurrean gauden, haiekin bizi garelako. Hamar gizonetik lauk aitortzen dute ordaindu egiten dutela emakume bati zakila sartzea-gatik, nahiz eta emakume horrek ez duen sexualki desio, eta, gainera, zaurgarritasun-egoeran dagoen. Puteroak dira, hain zuzen, errealitate ho-

netan ikusezin direnak. Orain ari da fokua pixka bat haien gainean jartzen. Izan ere, bizi garen bortxaketaren kulturaren beti fokua biktimaren gainean jarri izan da; nola zihoan jantzita, zer ordutan gertatu zen, baietz edo ezetz esan ote zuen...

Eskoletan eta institutuetan hitzaldiak eta formakuntzak eskaintzen dituzu zuk. Zer ikusten da? Egungo jendar-

teak puteroak sortzen jarraitzen du?

Bai. Puteroak sortzen jarraitzen du jendarteak, ez dagoelako hausnarketarik eta ezagutzarik. Baina, bideojokoen eta sare sozialen bitartez, puteroak eskala industrialean ari dira sortzen, gainera. Aisialdiarekin eta dibertsioarekin lotuta dauden jardura askotan emakumeen deshumanizazioa sekulakoa da. Gaur egun aplikazio ugari daude sexu edukiak ikusteko aukera ematen dutenak. Hilean kuota bat ordaindu eta eskura dituzu emakumeak erabat deshumanizatzen dituzten irudiak. 30 urtetik gorako askok ez dituzte aplikazio horiek ezagutzen; 11-12-13 urteko neska-mutiko gehienek, aldiz, badute horien berri eta batzuek erabili egiten dituzte. Gainera, neskato asko ari dira aplikazio horietan prostituziorako sarbidea egiten, lehen urratsak egiten.

Gure ardura eta erantzukizuna da, helduak garen neurrian, ez bakarrik gure neska-mutikoak heztea, baita babestea ere. Ezin ditugu babesik gabe utzi indarkeria horren guztiaren aurrean, horrek eragotzi egingo baitie gizaki oso gisa garatzea. Gaitasun kritikoa bereganatzen lagundu behar diegu, enpatia lantzen, ez diezaioten egin beste pertsona bati beraien azalean sufritu nahi ez dutena.

Beren emozio propioetatik erabat deskonektatuta bizi dira egungo neska-mutikoak eta horrela oso zaila da enpatia edo gupida sentitzea.

Pantailetan gertatzen dena fikzio bezala bizi dute, azalik gabeko fikzioa.

Bai, benetakoa ez balitz bezala. Nik 39 urte ditut eta nire adin-neko jendeak eta zaharragoek

nahiko garbi bereizi izan ditugu mundu erreala eta mundu birtuala. Baina gaur egun, mugikor bat eskutan dutela jaio direnentzat, ez da existitzen marra hori, bereizketa hori. Beraientzat pantailen bestaldean ikusten dutena oso erreala da.

Zineman eta literaturan ditugun adibideetatik badakigu fikzioak nola eragiten duen gure subjektibotasunean, nola eraikitzen gaituen. Gure ikerketetan bideojokoen inguruan galdetzen dugunean – 13-15 urte bitarteko nerabeei buruz ari naiz –, gehienek airtortzen dute adin txikikoen tzat debekatuak dauden jokoetan aritzen direla. Eta nola iristen dira bideojoko horietara? Gurasoen baimenarekin. Helduek tentuz zaindu behar dugu egunero gure neska-mutikoei txertatzen ari zaiena eta, era berean, ordezkari politikoei ardurak exijitu behar dizkiegu. Adin txikikoen hezkuntza eta babesa ziurtatuko dituzten neurriak hartu behar dituzte. Askotan helarazi nahi diguten ideia da ez dagoela ezer egiterik, Internet kontrolatzen zaila dela. Aldiz, bestelakoak ikusten ditugu, adibidez, gerraren testuinguruan. Horrelakoetan agintariak badute interesatzen ez zaien hori zentsuratzeko gaitasuna. Hortaz, pentsa genezake gure agintari politikoei ez zaiela interesatzen gure adin txikikoen bizitza eta osotasun morala babestea.

Adin txikikoen arazoa bakarrik al da?

Ez. Emakume asko ari dira beren azalean isilean sufritzen pornografiaren kontsumoak beren bikotekideen jarreretan daukan eragina. Finean, por-



nografia kontsumitzen duenak indarkeria erotizatzen du. Azken hilabeteotan gero eta ahots gehiago ari dira ohartarazten sexu praktikean indarkeriara ohitzeak dituen ondorio txarrez. Mendekotasun bat da, burmuinean mendekotasun batek sortzen duen efektuaren parekoa sortzen du eta denborarekin eragin bera lortzeko dopamina deskarga gero eta handiagoak behar dira. Eta horrek eskatzen du aldiro indarkeria maila igo beharra.

Zuk esana da gizonetakoak ez direla gaiztoak berez, sortzez.

«Nik beti neure burua feminista erradikal bezala aurkeztzen dut, baina ez edukiontziak erretzeagatik edo gizonak gorrotatzeagatik, arazoaren hondora joateagatik baizik»

Jendarte bezala gauzak oso gaizki egiten ari garela.

Bai, eta feministek barneratuta daukagu itxaropenerako ñabardura hori. Benetan sinesten dugu gizonak ez direla gaiztoak izatez, berez; bestela ez genuke horrelako ahaleginik egingo sistema oso bat iraultzeko. Feministak egiten ari garen lan guztiaren helburua da gizonetakoek beren egoeraren kontzientzia hartzea, sistemaren kontzientzia hartzea. Sistema honek mesede egiten die, ados, baina zeren truke? Zein da horren prezioa? Uste dut gero eta gehiago direla begiak zabal-

tzen ari diren gizonetakoak eta, gutxienez, entzuteko eta hausnartzeko umiltasuna dutenak. Eta konturatzen direnean benetan garrantzitsua emakumei eskutik emanda bidea elkarrekin egitea dela, emakumeak bidelagunak gara eta ez haiek eiakulatzeko zuloak, sistema patriarkalaren desertore bihurtuko dira.

Eta zoriontsuago lirateke baita gizonetakoak ere.

Zalantzarik gabe. Gizonetako gazte batzuk kezkatu egiten dira pornografia eta prostituzioa desagertu daitezkeela pentsatzen dutenean. Batzuek galdetu izan didate: «Pornografia eta prostituzioa desagertuz gero, nola izango ditugu sexu harremanak?». Nik beti esaten diet lasai egiteko, pornografia eta prostituzioa desagertuz gero larrua hobeto joko dugula eta larrua jotzearen gauza on guztiek hemen segituko dutela. Gauza txarrak desagertuko dira; frustrazio pila bat, tristura mordo bat, indarkeria eta dehumanizazioa ezabatuko dira eta larrua jotzearen gauza onak bakarrik geldituko dira. Eta hori ona izango da emakumezkoentzat zein gizonetakoentzat. Ona izango da tratatu onen aldeko apustua egiten duen gizarte demokratiko batentzat.

Azken urteotan feminismoaren kontrako oldarraldi bat sumatzen da gazteen artean. Feminismo 'onaren' eta 'txarraren' artean bereizteko intentzio bat ere sumatzen da.

Berrarmatze patriarkal bat eta erresistentzia batzuk gertatzen ari dira. Eta horretan ere badu parte Interneteko komunitateak.

Duela gutxi Gijonen izan naiz jardunaldi batzuetan eta galdetu zidaten ia desberdintasunik ote zegoen nekazaritza munduko eta inguru urbanoko gazteen artean. Galdera interesgarria iruditzen zait. Duela urte batzuk baziren desberdintasun horiek eta erraz bistaratzen ziren, baina gaur egun ez dago desberdintasunik; Interneten bidez eduki berak kontsumitzen dituzte, influencer berak segitzen dituzte, mezu berak jasotzen dituzte...

Interneten misogino handien eta gizon antifeministen nitxoak daude eta horiek sarean zabaltzen ari diren mezuak zuzenean iristen zaizkie mutiko gazteei. Nerabearoa sasoi konplikatu da, nahasmendu, zalantza eta min handiko garaia da eta erraza da egoera horretan dauden mutikoak harrapatzea.

Egia da feminista 'guaien' eta 'txarren' artean bereizteko behar bat dagoela. Erradikalak omen dira txarrak. Nik beti neure burua feminista erradikal bezala aurkezten dut, baina ez edukiontzia erretzeagatik edo gizonak gorrotatzeagatik, arazoaren hondora joateagatik baizik. Feminismo erradikalak hori esan nahi du, erroetara joan nahi duela. Badago feminismoa suabeago egiteko saiakera bat, politikoki zuzenaren diskurtsora gerturatzeko saiakera bat, astindu handirik sortzen ez duen feminismo bat. Dagoeneko ezin da mespretxatu feminismo hitzak esan nahi duen guztia eta beraz, orain feminista onen eta txarren artean bereizten saiatzen dira. Baina emakumeen bizi baldintzak hobetzeko borroka egiten dugun emaku-

meei prestigioa kentzeko estrategia bat baino ez da.

Zure hitzetan itxaropena arnasten da.

Bai, neronek ere behar dudalako, bestela ez bainintzateke borroka honetan aritzeko gai izango. Nire istorio pertsonala –“La revuelta de las putas” nire liburuan ondo islatuta agertzen dena– gogorra da. Lehen pertsonan bizi izan nuen se-

«Helarazi nahi diguten ideia da ez dagoela ezer egiterik, Internet kontrolatzen zaila dela. Baina gerraren testuinguruan, adibidez, agintariek badute interesatzen ez zaien hori zentsuratzeko gaitasuna»

xu-bizipen latzena, prostituzioaren mundua ezagutu ondoren. Bost urtean 40 prostituzio-etxe baino gehiagotan esplotatu ninduten sexualki Estatu espainolean. Hortik atera eta gaur egun naizen figura publiko eta politiko bihurtu nintzen. Noski, itxaropena behar dut bizitzeko eta borrokatzeko, nire bizitzari zentzua emateko eta feminismoak lortuko duela sinesteko. Ez da ni-

re barruko indar eta borroka bat bakarrik, feministek emandako eredu hor dago, hiru-rehun urte luzeko borroka artikulatua hor dago. Gure aurretik emakume askok pentsaezinak ziren gauzak lortu zituzten eta bide horretan goaz. Itxaropena dugu, erreferenteak ditugulako eta badakigulako historiaren liburuan orrialde garrantzitsu bat idazten ari garela.



Zazpi desberdintasunak

**Miren AZKARATE
BADIOLA**

Jolasa Elorriora iritsi baino lehena-go hasi zen autopistan gindoazela. Mugikorretan begira ari ginen zein irteeratan atera behar genuen Topagunera joateko; nire lagunari 42. irteera jartzen zion eta niri, aldiz, 43.a. Eta horretan ari ginela, autopistako seinale argiztatuak, duela 22 urteko topagunearekin alderatuz, lehen desberdintasuna aditzera eman zigun. Seinaleztatuta zegoen: «Topagunea 42. irteera». Ezin sinetsirik eta barre algara artean hartu genuen, beraz, esandako irtenbidea. Nire anaiak, bien bitartean, aurreko edizioan amak gidatzen zuen kotxean mendiz nola iritsi zen kontatzen zigun.

Aurretik, bagenituen antzemanda beste desberdintasun batzuk; hala nola, irrati publikoak kuña jartzea edo telebistako eguraldiko gizon ezagun batek bertaratzeko animatuz sare sozialetan bideoa zabaldu izana.

Herrian aparkatu eta berehala izugarrizko ilara ikusi genuen eta, harrিতuta, zer izango zen elkarri galdezka hasi ginen. Harridura handitu zitzaigun dutxarako ilara zela jakin genuenean! Gaur egungo gazteen gurasoei mezua: garbi-garbiak, ondo heziak. Eta gure garaian? Kar, kar...

Plaza erdian zegoen txosna-barran aurkitu genuen hurrengo desberdintasuna; atzealdean entxufe pila ikusi geni-

tuenean aho bete hortz geratu ginen. Harategian bezala, gerturatzen zenari zenbaki bat ematen zioten eta, trukean, mugikorra kargatu! Hamaika ikusteko jaiok gara, bai horixe!

Seigarrena tailerretan topatu genuen: edozein tailer zela, edozein ordutan zela, beteta zeuden guzti-guztiak! Bejondeizuela!

Eta zazpigarrena (gehiago zeuden e!), eta nire anaia “traumatizatua” utzi zuena, herriko plazako terrazan ikusi genuen: sei gizonen osatutako kuadrilla bat, gu bezalako gazte veteranoak, eguzkitako krema ematen!

Bada aldatu ez den zerbait: gazteen borrokarako grina eta irribarrea! •

Sare sozialak, erakusleihoa eta lupa

Egia esan, ez neukan Hego Koreako K-Pop kulturaren berri atzo arte. Urrun geratzen zait distantzian eta adinean. Distantziak esanahia zeukan adinekoa bainaiz. Orain, dena dago bertan.

Interesez irakurri dudanez, Hego Korean ez ezik, mundu mailan dira ezagunak K-Pop kulturako artistak. Eta musikatik harago doan fenomeno omen. Sare sozialetan goratutako eta imitatutako talentu gazteak dira. Eta gazteak izanagatik –25 urteren bueltakoak–, gehienek bizitza erdia daramate K-Pop artista izateko trebatzen. Ume-umetatik gorputza dantzarako eta ahotsa kanturako prestatzen. Artista horien gorakadan sare sozialek parte oso garrantzitsua daukate. Maitatuak eta

imitatuak izan behar dute, etengabe txalotuak, ez bakarrik emanaldi bat eskaintzen ari direnean, une oro eta etengabe baizik. Sare sozialetan erakusten duten bizitza lupaz begiratzen dute jarraitzaileek. Ondo egindakoak indarrez txalotzen dituzte eta pasio berarekin zigortzen dituzte gaizki iruditu zaizkienak. Epaiketa publiko masibo etengabe bat. Ezin bizi bat.

Azken hilabeteotan albiste mingarri izan dira K-Pop kulturako artista gazte sonatuen suizidioak. Horietako askok, gainera, publikoki esana utzi dute beste luparen pean bizitza ez dela bizigarria, itogarria baizik.

Sare sozialen erakusleioan ez da orbanik onartzen, dena da perfektua, disritatsua, bikaina. Eta oso-oso arrisku-

tsua. Hego Koreako albisteetan ikusi ditut irudikatuta gure inguruko hainbeste neska-mutiko. Une oro zoriontasun infinitua iradokitzen duten gorputz “perfektuei” begira pantailan. Sare sozialetako pertsonaia horietan topatzen ez duten “inperfekzioa” beren gorputzetan identifikatzen eta gorrotatzen.

Zoriontasun infinituaren eta edertasunaren egungo kanonak birrindu beharko genituzke. Esnatu berriaren lo aurpegia, sudurraren puntan ateratzen den pikorra, egun txar bat bukatu nahi duenaren desesperantza, negarrez itozten denaren mina. Bizitza, bere aurpegi guztiekin, asko baititu eta horietako asko ez dira samurrak. Sare sozialak fikzioa dira, behin eta berriz esan behar genieke gure neska-mutikoei. •

**Amagoia MUJIK
TELLERIA**



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka IZAGIRRE BROSA

Zenbait komedia erromantiko udaberria girotzeko

GAUR8-ko “Lau urtaro zortzi telesail” izeneko erreportajearen udaberriari eskaini nion tartean aipatu nuen moduan, urtaro hau iradokitzen diguten ikus-entzunezkoetan naturak edo kanpoko kokalekuek presentzia nabarmena izaten dute: mendia, loreak, neguaren ostean hondartza lehen aldiz zapaltzen dugun aldi hori eta abar. Istorioei dagokienez, komedia erromantikoak zein maitasun kontuak gailentzen dira normalean. Konbinazio horren barruan batzuek gehiago izaten dute komediatik, besteek gehiago dramatik, baina maitasuna ezin da falta inola ere.

DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK

«Maitasuna modu arin eta umoretsuan lantzen duen ikus-entzunezkoa». Definizio hori irakurrita (eskerrik asko, wikipedia) eta urte batzuk atzera, William Shakespeare-ekin topo egin dut beste behin. Shakespeare-ren lanek lehen komedia erromantikoaren oinarritzko zimenduak ezarri baitzituzten, baita modernoentzako oinarria ere: elkar ezagutzen duten bi pertsona, gatazka bat dute bidean eta zorionsu izateko helburuz elkartzen saiatuko dira. Hortxe dituzue, adibidez, “Much Ado About Nothing” edota 1595. urtean idatzitako “A Midsummer Night's Dream”. Kito, hori izan liteke komedia erromantikoa zer den zehazteko oinarritzko eta oso azaleko definizioa.

Udaberria, hazte, loratze eta berritze garaiarekin lotutako urtaroa; landare eta animaliak jaiotzen dira eta bizitzaren zikloa berriro hasten da. Maitasun eta gatzetasunaren garai moduan ere hartzen da. Telesailak maite ditugunontzat ere garai zirraragarria izaten da; izan ere, ekoizpen askok denboraldi berriak estreinatzen dituzte eta izenburu berri ugari ere gehitzen dira programazioan. Udaberria eta telesailak uztartzen saiatuko naiz, eta zer hoberik komedia erromantikoak aipatzea baino.

SORRERA

Hori apur bat hobeto garatzeko gehiago sakondu beharko nukeen arren, labur azaltzen saiatuko naiz: komedia erromantikoa *screwball* komediatik sortutako azpigeneroa izan

zen. Zuhaitz beretik jaiotako beste adar bat, alegia. Komedia mota hori Ameriketako Estatu Batuetan sortu zen 1930eko hamarkadan, Depresio Handiaren garaian. Protagonistak gizon bat eta emakume bat iza-



ten ziren –garai hartan, zoritarrez, erlazio mota horiek soilik erakusten zituzten–, eta ikusleak elkarrekin nola amaituko zuten jakiteko irrikan egoten ziren. *Screwball* komediek gizarte-klaseen arteko gatazkei heltzen zieten sarri, garaiko gogo-aldartea islatu eta, oztopo guztiak gainditzen zituzten pertsonaien bidez, ikusleei itxaropen-zantzua eskaintzeko helburuz.

KOMEDIA ERROMANTIKOAK PANTAILA TXIKIAN

Ariketa zaila dut gaurkoan, azpigenero honi dagokionez, historiako izenburu onenak zineman topatu daitezkeelako, baina ez dut telesailen mundutik irten nahi. Zerrenda aipatu aurretik aldarrikapen txiki bat: faltan sumatzen ditut LGTBQ+ pertsonaiak ardatz dituzten ganorazko komedia erromantikoak. Honatx azken urteotako izenburu interesgarri batzuk.

Love

Netflix

Gaur egungo erlazio sentimentalei eta adiskidetasunari buruzko hausnarketa txiki bat da honako hau. Maitasuna, sexua, intimitatean sor daitezkeen mespretxuak, konpromisoa eta espero ez ditugun gaiak modu interesgarrian jorratzea lortzen duena. Ahulezia izan zitezkeen topiko horiek bertute bilakatzen ditu telesail honen. Nerabetasuna aspaldi pasatu zuten pertsonaiek maitasuna zer ote den galdez-

ka pasatzen dute kontakizun osoa, baina bizitzak jartzen dizkien trabak saihestu gabe.

30 minutu inguru irauten duten hamar ataletan zehar, barre egingo duzu, baina baita drama ukituak sentitu ere. Pop kulturaren erreferentzia ugari erabiliz, gure egunerokoan gertatzen diren hainbat une bizitzeko aukera eskaintzen digu, gainera.

Azken oharra: pertsonaieki sentitu behar duzuen konexioa edo enpatia hasieratik sentitzen ez baduzue, utzi telesaila ikusteari. Bai, utzi. Telesaila behar bezala gozatzeko, proportzio berean maitatu behar direlako pertsonaiak. Bestela, akabo. Gus eta Mickey jasanezinak iruditzen zaizkizuela? Lehen atalak irauten dituen 45 minutuak ez dituzue jasango.

Heartstopper

Netflix



Uste dut telesail hau txalotu beharrekoa dela, modu ireki, baikor eta normalizatuan bi mutilen arteko maitasun istorioa jorratzen duelako. Telesailaren asmoak argi eta garbi gertatzen dira lehen ataletik, bi neraberren arteko harremana aztertzen duen kontakizun

erromantikoa aurkituko baituzue hemen.

Naturaltasunez kontaktzen du nerabezaro bete-betean dauden bi mutilen arteko maitemintze-prozesua. Eta egia esan, prozesu horretan sor daitezkeen gorabehera ia guztiak azaltzen dira: tximeletak sabelean, urduritasunak, ilusioa, etsipena, zerbait berria sentitzearen ziurgabetasuna, arbuaiatua izateko beldurra...

30 minutuko 8 kapituluetan, telesailak maitasunaren eta adiskidetasunaren etapa guztiak lantzen ditu; erritmo ezin hobean, gainera, protagonistekin egingo dugun bidaia sinesgarria izan dadin. Pertsonaia nagusi guztiak ezin hobeto eraikita daude eta hori da serie honen euskarririk sendoenetakoa. Nerabeen esperientziak bizi dituzten nerabeak besterik ez dira.

Egia da hainbat eszenatan bullying-a ageri dela, edota LGTBQ+ kolektibo orokorren aurkako irainak, baina horrek ez du protagonismoa edo indarra traman. Serie osoa eta muinean dauden azpitrama guztiak harreman osasuntsuen eta balioen inguruan eraikita daude, eta errealtate bat izan beharko litzatekeena irudikatzen dute: kolektibo horretako pertsonak pertsonak baino ez direla.

Modern Love

Amazon Prime Video




John Carney zinemagile irlandarrak sortua. "The New York Times" egunkariak duela urte

batzuetatik hona "Modern Love" izeneko zutabe bat argitaratzen du. Bertan irakurleei maitasun harremanak islatzen dituzten benetako istorioak labur kontatzeko aukera ematen diete. Telesail honek zutabe horretako istorioak oinarri hartzen ditu, 30 minutuko kontakizun independenteak azaldu (atal bakoitza istorio bat da) eta giza harremanak eta maitasuna aztertzeko.

Telesailak bi denboraldi dituen arren, kontzeptu bera oinarri harturik, "Modern Love Tokyo", "Modern Love: Mumbai" eta "Modern Love Hyderabad" ere sortu dituzte, herrialde horietan girotutako maitasun istorioekin. Pertsonalki interesgarrienak lehenengo bi zatiak dira. Antologia gehienetan gertatzen den moduan, atalaren arabera irregular samarra iruditu zaidan arren, batzuk bikainak dira. Aktore ezagunez josia, serie ikuserraza eta oso atsegina da.

Feel Good

Netflix



"Feel Good"-eko protagonista Mae da, bere emanaldietako baten ondoren George izeneko emakume bat ezagutu duen komediantea. Lehen atala hasi eta handik hamar minutura hilabete batzuk igaro dira eta elkarrekin bizi dira. Esan genezake, "Catastrophe" telesaila bezala, istorio hau tradizionalki komedia erromantikoak amaitzen diren lekuan hasten dela: bikoteak bizikidetzatza hasi ondoren, alegia.

Honakoa hau ez da hamaika aldiz ikusi dugun ohiko komedia erromantikoa. Gustatu zait, bikoteen alderdi ez hain

Telesail desberdinetako fotogramak. Behean, irudi handian, «Fleishman is in trouble».

erromantikoa ere erakusten duelako. Laburra baina bizia, tragikomedia kutsua erabiliz barre eta negar eginaraziko dizue. Istorioa, gainera, hein batean, protagonistaren benetako bizitzan oinarritzen da, errealtatea eta fikzioa nahasiz, "stand-up" ikuskizuna izango balitz bezala.

FLEISHMAN IS IN TROUBLE

Disney+

Toby eta Rachel izeneko bikotearen dibortzioari buruzko istorioa da; horren ondorengorri buruzkoa, zehatz-mehatz. Banaketaren ostean, egun batean, Rachel arrastorik utzi gabe desagertuko da; Toby bakarrik geratuko da, 9 eta 11 urteko bi seme-alabekin. Ez da era horretan desagertzen den lehen aldia, baina inoiz ez hainbesteko denboraz eta, are gutxiago, alde aurretik jakinarazi gabe.

Haustura horren protagonista nagusiak Jesse Eisenberg eta Claire Danes direla esan behar nuen, baina Lizzy Caplan ere ezinbestean sartu behar dut hirukotean; kontakizunaren eskutik doan ezinbesteko off-ahotsa berea delako eta funtsezko pertsonaia bihurtzen delako horri esker.

Egitura narratiboa deigarria iruditu zait; emazte ohiaren desagertzea argitzeko asmoz pertsonaia nagusia iraganeko pasarteetan ainguratuta bizi



da, eta telesailak egiten dituen denbora-jauziak, protagonistaren ikuspuntutik betiere, erritmo bizia ematen diote, muntaketa apartaz eta Caroline Shaw-en musika dotoreaz lagunduta.

30-45 urte bitarte badituzu, protagonista bakoitzaren zati batekin identifikatuko zarela edo, gutxienez, enpatia sentituko duzula uste dut.

Catastrophe

Amazon Prime Video



Rob Delaney (estatubatuarra) eta Sharon Horgan (irlandarra). Bien arteko erlazio motz baten eraginez, emakumea haurdun geratuko da. Ez dute apenas elkar ezagutzen, baina harremanari eusteko saiakera egingo dute.

Premisa ezin sinpleagoa da, baina horrexegatik iruditzen zait telesail honen meritua go-raipatzeko modukoa. Txikitatsun horretatik telesail bikaina lortzea oso zaila delako. Kontatu nahi diguten ideiarekiko fideltasun osoa eskaintzen digu lehen minututik.

Bereziki, pertsonaiak nabarmenduko nituzke. Zeinen garrantzitsua den gidoi edo istorio sendo batean tramarekin batera eskutik doazen pertsonaia landuak izatea! Amazon-en ekoizpen honek bi protagonista maitagarri eraikitzea lortu du, lehen minututik maitatuko ditugun pertsonaia zoragarriak: Sharon Horgan eta Rob Delaney (aktore ez ezik, telesailaren gidoilariak ere badira). Etengabe jariatzen duten naturaltasun horri esker, kimika harriarria sortzea lortu dute bien artean.

Strastruck

HBO Max



BBCK eta HBO Max-ek ekoiztiko komedia erromantiko honetan, Rose Matafeo aktoreak Jess gorpuzten du, Londresen etxebizitza partekatzen duen Zeelanda Berriko gaztea. Urtezahar gauean, Jess taberna batean ezagutu duen mutil batekin oheratu ostean, ondorengo goizean esnatzean, modako aktore oso ezaguna dela deskubrituko du. Hortik aurrera millennial maitasuna ardatz duen eta "Nothing Hill"-en kutsua duen komedia erromantikoko fresko eta arina ikusteko aukera izango duzue.

Egoera barregarri eta zentzugabeak, baina, aldi berean, guztiz sinesgarriak telesailaren euskarri nagusia direla iruditzen zait. Ziur aski telesailak bere sortzailearen bizitza pertsonala inspirazio gisa hartu izanagatik, errealismoa antzematen zaio une oro.

Master of None

Netflix



Azken urteotan oso modan jarri den dramedia (drama eta komedia, uztartuta) azpigenerearen zalea bazara, ez galdu telesail zoragarri hau. Lehenik, arlo horretan, azken urteetako telesail bitxi eta berritzaile-



Beste fotograma sorta bat. Goian, irudi handian, «Fleabag».

leena delako. Lehen denboraldia, oso ona; bigarrena, zoragarria. Eguneroko keinu txikiek duten garrantziari buruzko maisulan honek haren bizitzarekin zer egin ez dakien Dev izeneko tipo baten istorioa kontatuko digu: New York hirian bizi den 30 urte inguruko aktorea. Hasieran pazientzia apur bat eskatzen duen arren, ohartarazi nahi dizuet telesail honetaz erabat maiteminduko zaretela. Zoragarria.

Fleabag

Amazon Prime Video

Phoebe Waller-Bridgek, "Fleabag" telesailaren gidoilari eta protagonistak, azken urteotako umorezko telesail desberdin, garrantz eta lotsagabeena sortzeaz gain, azkenaldian ikusi dugun emakumezko pertsonaia harrigarriena landu du, eta eskertzekoa da.

30 urte inguru dituen Fleabag-en istorioa azaltzen digu: sexu harremanak izatea lehen-

tasun nagusi bilakatu duen emakume –hartu arnasa– zoro, lotsagabe, suntsitzaile, berekoi, perbertitu, ziniko, kaotiko, heldugabe eta, batez ere, dibertigarria. Izaera hori, azken urteetan, "Louie", "Love", "Girls" edo "Catastrophe" telesailetan ikusi dugun antzeko umorearekin nahastuta, ekoizpen beltz, garrantz eta, hainbat unetan, deseroso bilakatzea lortu dute.

Topiko guztietatik erabat aldentzen den emakumezko pertsonaia zoragarria. Hori bai, mota honetako telesail ugaritan gertatzen den bezala, muinean, drama bat dagoela ohartarazi nahi dizuet. Bainahamen eta erokeria horren guztiaren azpian tragedia moduko bat ageri delako. Ez pentsa, beraz, barrea soilik egingo duzuenik, algara eta drama orekaz uztartzen dituen ekoizpen burutsua baita.

Fleabag gorrotatu ala maitatuko duzuen jakiteko, hasiztezte umorezko telesail selebre eta zoragarri hau ikusten.

NORMAL PEOPLE

Starz



Komediatik apenas duen arren, azpigenere erromantikokoan azken urteotako izenburu interesgarrietarikoa dela uste dut. Sally Rooneyren eleberraren moldaketa da –"The New York Times" egunkarian millennial-en garaiko idazle handi bezala definitu dute–.

2008ko finantza krisiaren ondorengo Irlandako herrixka batean girotua, Marianne (Daisy Edgar-Jones) eta Connell (Paul Mescal) dira kontakizun erromantikodramatikoko protagonista nagusiak. *Coming-of-age* generoa ardatz hartuta, sentikortasun handiz zuzenduriko 30 minutuko 12 atal topatuko dituzue.

Hasieratik emozionalki sartzeari lortzen baduzue, Marianne eta Connellen arteko maitasun istorio korapilatsuaren parte sentituko zarete. Bi protagonisten arteko kimika gutxi ez, eta ekoizpenaren inguruko alorrak ere azken zirrikituraino zaindu dituzte. Pertsonaien arteko igurtzi bakoitza, begirada bakoitza, topaketa bakoitza... behar bezala desfokuratutako lehen planoek indartzen dituzte, adibidez. Ederra bezain etsigarria den kontakizun hau ikusleari helarazteko, zinema komertzialaren eta independentearen arteko oreka perfektua lortu dutela iruditzen zait. Harribitxia.



Maite ORONOZ

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria, UPV/EHU

ChatGPT, Irulegiko eskua eta haluzinazioak

Maiz, zaila egiten zizaidan hizkuntzaren prozesamenduan (HP) zer egiten genuen azaltzea. Azken hilabeteotan, ordea,

HPren aplikazio bat, ChatGPT, ahotik ahora darabilgu, eta hori horrela, ChatGPTren tripetan zer dagoen azaldu genuen martxoko artikuluan (Olatz Arregi, GAUR 8). ChatGPT 2022an sortu zen eta euskaraz “bada-ki”, baina duela 2.100 urte sortu zen Irulegiko eskuak ere baditu baskoiek erabiltzen zuten euskararen aztarnak. SORIONEKUak gu, hilabete gutxiko tartean gure hizkuntzarentzako hain garrantzitsuak diren albisteak jaso ditugulako. Eta 2.000 urte baino gehiagoko diferentziarekin sortutako testu-euskarri hauen artean zubi bat ezartzen saiatuko bagina, lortuko genuke?

Irulegiko eskuak, oraingoz dakigunaren arabera, ez daki ezer ChatGPTri buruz. Eta ChatGPTk ba al daki zerbait Irulegiko eskuaren inguruan?

Has gaitezen ChatGPT zer den labur azaltzen (xehetasun gehiago martxo-ko alean). ChatGPT elkarrizketa-sistema bat da, oinarrian hizkuntza-eredu bat duena, zeina eskuz aberastu den elkarrizketak bideratzeko gaitasuna izan dezan. Ekonomian aditua den jende askok aspaldi esana du Hezkuntzan inbertitzen den euro bakoitzeko etorkizuneko jendartearentzat zortzi euroko irabazia izango dela.

Hizkuntza-ereduak alde aurretik milioika hitzez osatutako testu-bildumekin entrenatuak izaten dira eta entrenamendurako, neurona-sareetan oinarria duten arkitekturak erabiltzen dituzte (gehienetan “transformer” izeneko arkitekturak). Ehunka hizkuntza-eredu daude gaur egun,

baita Euskal Herrian euskararako sortutakoak ere (ixa.eus), baina oraingoz ezagunenak, OpenAI enpresak plazaratutako ChatGPTk oinarrian dituen GPT-3 eta GPT-4.

Jar dezagun ChatGPT proban.

- Zer da Irulegiko eskua?


-Irulegiko eskua edo “Irulegi eskua” euskal mitologiako pertsonaia da, Basajaun bezalakoa, baina bera kartsua da eta zaurgarria izan daiteke, eta hainbat ipuin, lekuko eta kontakabuz jorratzen da Euskal Herrian (ikus irudia).

Egia esateko, bi kontuk harritu nauten elkarrizketan: I) euskaraz azaleko akats ortografiko eta sintaktikorik gabe eman du erantzuna, eta II) hitz “ezohikoak” erabili ditu (kartsua, kontakabu). Beste hirugarren bat ez zait deigarria egin: erantzunean haluzinatu egin du. Adimen Artifizialean (AA) “haluzinazioa” onargarriak diruditen baina zuzenak ez diren edo testuinguruarekin lotuta ez dauden emaitzak sortzea da. Normalean, adimen artifizialek izan ohi dituzten al-

borapenengatik, mundu errealarari buruz duten ezagutza faltagatik edo entrenamendu-datuen mugengatik sortu ohi dira haluzinazioak. Beraz, ChatGPT, gehienetan, oso zehatza den arren, noizean behin haluzinatu egiten du eta erantzun ez-fidagarriak ematen ditu. Hizkuntza-ereduetan “egiatasuna” (*truthfulness*) nola gehi daitekeen aztertzea da une honetan ikerketan jorratzen ari den lerroetarikoa bat.

Baina, orduan, ez ditugu sistema hauek erabiliko? ChatGPT eta antzekoak lagungarriak dira, erabileran dibertigarriak, beti kasu egiten dute eta ia gehienetan erantzun zuzena ematen dute. Beraz, bai, tentuz erabil daitezke. Baina... euskaraz erabili nahi baditugu eta euskal kontuez jakin dezaten nahi badugu, nire ustez egin beharrekoa hizkuntza-ereduak Euskal Herrian sortu, euskaldunon laguntzaz aberastu eta bertan egokitzea litzateke. Baliabide teknikoak eta ezagutza baditugu eta probestu beharko genituzke sistemok euskal kontuekin haluzina ez dezaten. •

M Zer da Irulegiko eskua?

 Irulegiko eskua edo "Irulegi eskua" euskal mitologiako pertsonaia da, Basajaun bezalakoa, baina bera kartsua da eta zaurgarria izan daiteke, eta hainbat ipuin, lekuko eta kontakabuz jorratzen da Euskal Herrian.

Irulegiko eskua, basajaun txikia bezala ere ezagutua da, baina Basajaunen artean nabarmentzen da bere muga-eremuaren zaurgarritasuna eta garai batean, jainkoak, euren mitologian, hainbat izaera izan zituen, hainbat bizi-eraso egin ondoren.

Gaur egun, Irulegiko eskua euskal mitologiaren parte garrantzitsu bat da eta herri-kulturan gaur egun ere bizirik dago, baina oso gutxitan erabiltzen da jokoetan edo antzerki-obra batzuetan.

ChatGPT Irulegiko eskua zer den deskribatzen. GAUR8

BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. PHOTO CARTE FUNTSA. KUTXATEKA.

DONOSTIAKO LANGILE-ELKARTEEN FEDERAZIOA

Donostiako langile-elkarteen federazioak hainbat ekitaldi antolatu zituen 1922ko maiatzaren 1erako. Bezperan, Antzoki Zaharrean, aktore afizionatuek antzeztutako obra bat eta Remigio Peña baritonoaren errezital bat izan ziren, pianoan Secundino Esnaola Berrondo Donostiako Orfeoiko zuzendariak lagunduta. Maiatzaren 1eko goizean, mitina egin zuten Antzoki Zaharrean, gainezka zegoela. Besteak beste, Sergio Etxeberria donostiarra eta Mediavilla eta Bengaray sindikatueta ordezkariek hartu zuten parte. Irutxulo musika bandak girotutako eta milaka lagun bildu zituen manifestazioa ondoren egin zen eta hiriko kale nagusiak zeharkatu zituen. Okendo kaleko Gobernu Zibilera iritsi zenean, batzorde batek gobernadore zibilarri dokumentu bat eman zion, Gobernuari egiten zizkioten eskaerekin. Besteak beste, Sobiet Errepublikaren errusiarraren onarpen ofiziala, preso politiko eta sozial guztientzako amnistia eta Marokoko Gerra berehala uztea eskatu zioten Gobernuari. Era berean, agiri hartan, protesta egiten zuten soldata jaisteko eta zortzi orduko lanaldia bertan behera uzteko patronalak egindako erasoagatik. Irudian, manifestazioaren une bat, San Martin kaletik igarotzen.

20 bidaiari

naiz: -en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde
berrietara
goaz



AKUATIKOAK

Rosario mendilerroko barrunbeetan

hurrengo
ostiralean
zure
kioskoan

1,50€

eta gainera...

CHONG KNEAS
UR-GORALDIEN
MENDE

GR11
NAFAR PIRINIOKO
ZAINA

ISANDLWANA
INPERIO BATEN
PORROTA ANTZEZTEN

ELKARRIZKETA
JOSE ELADIO EZPELETA,
ERREPIDE AMAIGABEAN

MAR MENOR
BIGARREN
AUKERA BAT

Begirada Azken trishawak, Kuala Lumpur argizatzen **Bertatik bertara** Nafarroak ere badu hondartza;
Fantasiaz beteko dira Alondegiko pantailak; Balenciagaren lan prozesua ikusgai; XXX. Argazki Bilera abian Zarautzen;
Umorea nagusi Leioako kaleetan **Munduan pasieran** Hiri debekatua; Vittorio Emanuele II, horiz margotuta; Kaliforniako superloratzearen bila;
Paros uharteko lehenengo turistak... **Hiriak laburrean** Berlin, historiaren lekuko

